

# GUaiXE.eUS



## Erabakitze eskubidea praktikara Bakaikun

>>> 3



## Isilik, ozen entzuteko

>>> 8-9



## Indarkeria matxistaren kontrako eguna

>>> 5

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**Artzai Karasatorre Sureda**  
Urte askotarako! Segi hain jator eta irrifartu. Etxekoan partez milaka besarkada eta muxu potolo. Zorionak Artzi!



**Edurne**  
ZORIONAK polita!! Zenbat urte bete dituzu? Ostiralean, gonbidatuko gaituzu pote bat hartzera? Maite zaitugu. Muxu handi bat zure lagunerekin partez.



**Eneko Reparaz**  
ZORIONAK! Egun polita pasa dezazula igandean. Aitona eta amonaren partez muxu pila.




**Joxe Migel Gaztelu**  
ZORIONAK etxekuen partez. Segi hain pertsona ona eta jatorra izaten. Beti aurrera!!! Muxu asko.



**Aupa Mario!!**  
Urte bat gehiago zoriondu nahi zaitugu. Oso egun ederra izan dezazula, eta urte askotarako!! ZORIONAK!! Ainhoa, Amaia, Amets eta zure amatxo.



**ZORIONAK Mireia!!!**  
Dagoeneko hamabi urte bete dituzu; handitzen - handitzen ari zara neska!!! Zure lengusu eta lengusinak.



**Gorka Olaiz**  
Fridayista famili-eroa guztiaren partez, goza ezazu ahal duzun hobekien... Gehien desiatzen duzun oparia lortzeko borrokan jarraituko dugu eta...

**Bazkideek deskontua**

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

## Azaroa-abendua

# 25-1

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

### Musika

**Zintz.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Bakaikuko karpan.

**Joseba Tapia eta Besamotzak**  
Azaroaren 25ean, ostiralean, 22:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Garabatos eta Alerta Gorria.**  
Azaroaren 25ean, ostiralean, 22:30ean Bakaikuko karpan.

**Ane Martija eta Amaia Guruzelain.**  
Azaroaren 25ean, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Iratxo elkartearen Erratzak Astinduz.

**Jeiki abesbatza.** Azaroaren 26an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

**Hilotz eta Legalize Murder.** Azaroaren 26an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranatzan.

**Perkusioa.** Azaroaren 26an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Ondoren merendua.

### Antzerkia

**Peter Punk.** Azaroaren 26an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Tdiferencia.**

**Solitudes.** Azaroaren 26an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Kulunka teatro.**

**La princesa de fresa.** Azaroaren 27an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Gus marionetas.**

### Ipuin kontalaria

**Ez esan inori.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Birjiñe Albira.**

### Zinema

**Neskatoak.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**El hombre de las mil caras.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 27an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Mascotas.** Azaroaren 27an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**La chica del tren.** Abenduaren 1ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Bizikleta-irteerak

**Arleze.** (53 km.) Azaroaren 27an,

domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 9:20an Bioitza kanpenean. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Irteerak

**Zizak ezagutzera.** Azaroaren 26an, larunbatean, 9:00etan Lakuntzako plazatik. Zabalarre mendi elkarte. **Gidaria: Beloki.Mendi irteerak**

**Madotz-Akier-Oderitz-Bazkaria.** Azaroaren 20an, igandean, goizean Irurtzungo. **Iratxo mendi taldea.**

### Erakusketak

**Ziza erakusketa.** Azaroaren 26an, larunbatean, 17:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan.

**31. Ferietako argazki rallya.** Azaroaren 29ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara. Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Hitzaldiak

**Frankismoa Euskal Herrian. Behin betiko konponbidea.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Arbizuko udaletxe batar gelan. **Hizlaria: Iñaki Egaña.**

### Tailerrak

**Usemos el movil con la cabeza.** Azaroaren 29an, asteartean, 17:00etan Olatzagutiko Akelarre ludotekan. **9 urtetik gorakoendako.**

**Reder sociales, jóvenes y violencia de género.** Azaroaren 30ean, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Ianire Estebanez psikologoa. Helduendako.**

### Azokak

**Merkazoka handia. 2. eskua eta artisautza.** Azaroaren 27an, igandean, 10:00etatik aurrera Izurdiagako futbol zelaian.

### Bestelakoak

**Emakumearen Indarkeriaren kontrako eguna. Ekitaldia.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 13:00etan Altsasuko Iortia kultur gune parean.

**Gaupasa.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 22:00etatik Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Erabakiaren festa.** Azaroaren 27an, domekan, 9:00etatik aurrera Bakaikun.

**Ikusi-Makusi.** Azaroaren 27an,

igandean, 17:00etatik 19:00etara Lakuntzako kultur etxean.

**Neskak eta mutilak, amodio bila?.** Azaroaren 27an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Turismo Garapen Jasangarriaren Esperientzien I. Jardunaldia.** Azaroaren 28an, astelehenean, 15:30etik aurrera Uhartea Arakilgo Zamartze monasterioan. **Sakanako Garapen Agentzia.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztiñ. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

**Bizirik eta aske izan nahi dugulako.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo plazan. **Erratzak Astinduz.**

**Indarkeria matxista, erantzun feminista.** Azaroaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko udaletxe parean. **Altsasuko mugimendu feminista.**

**Altsasu.** Azaroaren 26an, larunbatean, 13:00etan Altsasuko suhiltzaileen parke pareatik.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Beilatokia toki egokian. Nahiez gero posible da.** Azaroaren 30ean, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenean ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Bakaikuko herri galdeketa
- Altsasuko manifestazioa
- Lakuntzako kultura diagnosis

Igandean, zuzenean  
**Osasuna - Atletico**  
16:15ean

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

**MERKAZOKA:** Izurdiagako futbol zelaia igandean, 10:00etatik aurrera, 2. eskuko objektuen eta artisautza azoka hartuko du. Bermuta, Txalo pailazoa, zozketak, musika, hurrendako jolasak eta beste iragarri dituzte. Nahi duenak postua jartzeko aukera izanen du.

ka, hurrendako jolasak eta beste iragarri dituzte. Nahi duenak postua jartzeko aukera izanen du.

# ezkaatza >>

## SAKANA

### Gurean ere gaurkoa Ostiral Beltza

**Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko 20 kide inguruk Black Friday edo Ostiral Beltza ospatuko dute. Horrela, gaur, ostiralean, eta bihar, larunbatean, pagotxa ederrak eskainiko dituzte**

Beste asko bezala, AEBetatik dator Black Friday. Azarokolaugarren ostegunean Esker Emate eguna ospatzen dute AEBetan, eta hurrengo eguna da Black Friday. Gabonetako eroske-



tei hasiera ematen dio Black Friday egunak eta denda eta komertzioetan beherapen handiak egiten dizkiete produktu guztiei. Europara ere hedatu da kontzeptu hau, eta gurera ere. Horrela, Sakanan ere gaurkoa Ostiral Beltza izango da.

#### GAUR ETA BIHAR

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko 20 kide ospatuko dute Ostiral Beltza. Eta ez da ostiralerara mugatuko, gurean gaur eta bihar, larunbatean izanen baita Black Friday. Etxarri Aranazko eta Altsasuko zenbait denda izango dira euren produktuak sekulako prezioetan eskainiko dituztenak. Moda, osagarriak, jostailuak, oinetakoak, papergintza, etxeko tresna elektrikoak, ailtzariak, optika... pagotxak eta beherapenak denetariko komertzioetan eskainiko dira eta, honela, Eguberrietako kanpainari hasiera emango zaio.

#### OSTIRAL BELTZA 20 DENDATAN

Argiro Optika, Hostogorri Ailtzariak, Arkatz Liburudenda, Asensio Moda, Boutique Ekin, Izara Cortina Store, Deportes Lezea, Electricidad Ramos, Electrodomésticos Ramos, Iker Kiroiak, Joselen Moda, Larka Emakumea/Gizona, Lasa Kiroiak, Mari Carmen, ML Moda, Sare Calzados, Tu tienda especial, Txikitxo, Gertu Sakan Sdad. Coop eta Izki denda.

## Bakaiku

# Erabakitze eskubidea praktikatzera

Hautetsi izandakoek galdeketan parte-hartzera deitu dituzte bakaikuarrik



Bakaikuko Udalean 1979tik gaur egunera arte ardura izan duten eta duten hautetsiek manifestua publiko egin zuten atzo. Agerraldian jakinarazi zuten, igandean Bakaikun egingen den herri galdeketarekin bat egiten dute. "Erabakitze eskubidea aldarrikatu eta praktikan jartzeko ariketa demokratikoa dela deritzogu". Aldi berean, adierazi zuten, "manifestua sinatzen dugunok joera eta ideologia ezberdinekoak gara. Litekeena da Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun desberdinak nahi izatea, horregatik, aniztasun horretatik, bakaikuarrik bozkatzera gonbidatu nahi ditugu, zeinahi dela ere botoaren norabidea". Aipatu aldiari hautetsi izan eta bizirik dauden 43 zinegotzietatik 40k bat egin dute, alkateak barne.

sioa dauka eta Gure Esku Dago-rekin aurrera egiteko giro ona dago".

#### Zergatik?

Galdeketa "herriak eskatzen duelako" egingen dute. "Herri gisa erabakitzea behar dugu, zentzu horretan pausoak eman behar ditugu. Erabakitze eskubide horren alde egiteko modua hau da. Uste dugu herri honetan erabakitze eskubidearen eta jendea ahalduztzeko bidean salto oso handia egin dugula".

Galdeketa Bakaikun utziko duenaz galdetuta zera erantzun digute: "jendearen parte hartzeko jarrera; jende desberdinen arteko beldurra kentzea, herrian konfiantza gehiago izatea; jendearen erabakitze eskubidearen behar eta ahalduztze kontzientziazioan pausotxo bat eman dugu. Urtetan iraunen duen arrastoa utziko du.

Antolatzaileendako galdera baino gehiago garrantzitsuena "jende guztia bozkatzera joatea da. Berdin da galdera zein den, ahalduztzea eta erabakitzea hori da

zioa". Parte-hartzea egindako lanaren saritzat dute.

A13 plataforma etxarriarraren eskarmentua eta Gure Esku Dago-rekin galdeketetarako protokoloa izan dira izan dituzten "irakasleak". Urte bateko lana despedituko da domekan. Heldu den urtean Sakanan hainbat herri galdeketa egingen dituzte, eta dagoeneko harremanetan daude, "laguntzen ari gara, eta ondoren ere".

+www.guaixe.eus

#### Galdera

Euskal Herri **independiente** bateko **herritarra** izan nahi duzu?

#### Datuak >

- **Errolda:** 300 inguru, 16 urtetik gora
- **Galdeketa egitea erabaki zuten:** 60
- **4 lantalde:** komunikazioa, egitaraua, sustatzailea eta muntaia
- **Antolakuntza:** 40 lagun
- **Pintxo-potea:** astero koadrila bat
- **Domekan lanean:** 60tik gora
- **Galdeketa babestu dutenak:** 148
- **Aurretiko botoak:** 8
- **2 galdeketa:** Diman eta Bakaikun.

#### Egitaraua

##### >> Azaroak 25, ostirala

**20:00etan** Zintz taldearen kontzertua. Bokata-jana  
**22:00etan** Garabatos taldearen kontzertua.  
**00:00etan** Alerta Gorria taldearen kontzertua.

##### >> Azaroak 26, larunbata

**17:00etatik 19:00etara** 4 eta 12 urte artekoendako tailerrak.  
**19:30ean** Karaokea.  
**19:30ean** Pintxo potea.  
**20:00etan** Andoni Oilokiegiren kantaldia.

##### >> Azaroak 27, domeka

**9:00etan** Hauteskunde mahaien irekiera ekitaldia. Zorri azoka goizean. Puzgarria egun osoan.  
**11:00etan** Txistulariak.  
**11:15ean** Trikitilariak  
**12:00etan** Buruhandiak eta Erraldoiak gaitariak lagundurik.  
**12:30ean** Herri Kiroiak: Arbizu, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain.  
**13:00etan** Ekitaldia. Bakaikuko Zortzikoa eta Gure Esku Dago dantza.  
**13:30ean** Kantuz poteoa, Zubi Ono kantari taldearekin.  
**14:30ean** Bazkaria.  
**15:30ean** Kafea eta Kantua, Edor Zubeldiak lagundurik.  
**18:30ean** Zirkoloretua  
**19:00etatik 20:30era** Inun kantaria Emaitzak eta amaiera ekitaldia.

Oharra: ekitaldiak San Juan plazako karpan.

IKUSMINA DA!

PLAZERA DA!

HITZA DA!

KULTURA DA!

PARTE HARTZEA DA!

SORKUNTZA DA!

51. DURANGOKO AZOKA

# BIZITZEKOA DA!

WWW.DURANGOKOAZOKA.EUS

## 2016ko ABENDUAREN 2tik 6ra

ANTOLATZALEA

BABESLE NAGUSIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK



Marian Mendiola

## astekoa hara zer dien

### Alzheimerra duten gaixoen erorketak

Gizartearen etengabeko zahartze prozesua dela eta, azken hamarkadan gai honen inguruan egin diren ikerketen arabera, Alzheimer gaixotasuna daukaten pertsonak sarriago erortzen dira; gaixotasuna ez dutenak erortzen direnaren hirukoitza. Erorketak gehiago errepikatzen dira eta pronostiko larriagoa izaten dute.

Funtzio kognitiboak –edozein ekintza aurrera eramatea ahalbidetzen duen buruaren prozesuak– garrantzi handia dauka Alzheimerra daukaten gaixoen ibiltzearen eta oreka mantentzearen erregulazioan. Atentzioak, funtzio exekutiboak, ikusmen espazialak eta, baita ere, memoria baliabideek horren kontrolean parte hartzen dute.

Gaixoen buruaren hondatzearekin batera, zenbait aldaketa gertatzen dira haien ibileran. Hala nola, abiadura txikitzen dute, pausoak motz, balantzak eta arrastak ematen dituzte, pausoen luzera aldakorra bihurtzen zaie, besoak gutxiago mugitzen dituzte edo oztopoak saihesten motelagoak dira. Ohean mugikortasun ona daukaten arren, ibiltzen hastea zaila egiten zaie; zoruari itsatsita gelditzen dira eta oina igotzerakoan kulunkatzeko edo erortzeko arriskua daukate. Pauso batzuk eman eta gero, ibilera hobetuz doaz, baina bat-batean gelditu daitezke eta, segundo batzuen buruan, berriro ibiltzen hasi. Hau da, medikuntzan “martxa apraxikoa” bezala ezagutzen denaren zantzuak daukate.

Alzheimer gaixotasuna daukaten pertsonen tratamenduan ibileraren ebaluazioa pisu handikoa da. Geroz eta argiagoa da ariketa fisikoak kognizioan, hau da, burmuinean, dakarren onura. Izan ere, ibilerak burmuinaren eremuen arteko lotura eta elkarrreragina bultzatzen ditu, beraz, buruaren gaitasunendtzako entrenamendu modukoa da.

Azkeneko ikerketek ariketa erresistentzia programak ezarri dituzte eta azaleratu dute funtzio exekutiboan eta abiaduraren bizkortzean hobekuntzak dakartzala. Berri pozgarria, beraz, mota honetako gaixoen tratamenduan. Izan ere, dementziari aurre egiteko beste terapia garrantzitsuekin batera gaixotasunaren garapena geldituko ez badute ere, moteldu egingo dute.

**Josefina Arregi Klinika**

# Denboraren denbora pasak

Kuxkuxean aritu, lagunekin hitzorduak jarri, argazkiak igotzen edo denbora-pasa ibiltzea dira gizarte sareen erabilpen arruntak (baten batzuek lan kontuetarako erabiltzen badute ere). Sare sozialetan denbora guztian dago zer bait ikusteko, irakurtzeko, eransteko, esateko, eta abar.

Pasatako ordu guztiak, gehiengotan, probetxugarriak ote? Baietz ezagutu ondoren kontatuko dudana egoeraren bat! Gozo-gozo zaude sofan etzanda, pelikula bat ikusten, irakurtzen, atsedena hartzen edo egonean, inongo lan-eginkizunik ez duzun egun horietako batean. Etxeko wiifia eta

3Gak martxan dira. Dar-dar bat entzunduzu, ondo-ondoan duzun mugikorretik. Whatsappeko mezua da eta, axaleko gainbegiratu bat eman ondoren, egiten ari zinen horretara itzultzen zara. Halako batean beste dardara bat entzuten duzu, oraingoan Instagrameko da, eta bertan jarri dutena begiratzen duzu. Atsegin dut sakatu eta lehengoari ekiten diozu. Halako batean beste runrun bat, hau Facebook-etik dator eta jakin-nahikeria pizten zaizu. Azken aldian asko aipatzen ari den gai baten inguruan eztabaida piztu da eta letra batzuk idazteari ekiten diozu, letra gutxi

batzuk, eta laburbiltzeko emotikonoa sartzten duzu, irribarrea ahoan duela (duzula). Beste batzuek mezu horri erantzuten dioten bitartean, zu zaingeratzen zara eta denbora-pasa moduan sartzten ari diren mezu-albisteak irakurtzen dituzu. Barra-barra datoz publikazioak. Lagun batek YouTubeko bideoa elkarbanatu zabaldu du eta klikatu egiten duzu. Politta da, interesgarria. Whatsappino berriz hoska dabil, talde batekoa da eta hortxe dabilta eztabaidan, marmarrean. Egiteko asmoa zenuena, dena delakoa, zain duzu, noiz ekingo dizun esperoan; liburua tolestuta,

telebista pantaila izoztuta, begiak erne-erne. Halako batean, azken asteetako gatazka-saltsaren inguruko txioak entzuten dituzu eta Twitter kolapsaturi erreparatu behar diozu, ezinbestez. Ufala!!! Aste guztia gustukoa duzun hori egiteko zain egon eta gero, alperrik, ez dago modurik. Konturazterako pasa da arratsaldea eta liburuaren lehen orrialdetik ez duzu jauzi egin, pelikula etenda utzi duzu edota loak ere ez zaitu hartu.

Sare sozialetan ematen dugun denbora hori guk antolatzen dugu edo gu antolatzen gaitu? Off edo on, nahieran egiteko gai?

## gutunak

### Alex maite zaitugu

Iñaki Agirre, Alexen etxeko izenean

Urtarrilaren 31n Alex hilik agertu zen Etxarritik Arbizura doan errepidean, auto batek harrapatuta. 10 hilabete pasa dira eta oraindik ez da argitu zehazki zer gertatu zen.

Horiek datu hotzak baizik ez dira. Guretzat, ordea, errealitate mingarria da, Alex gure artetik, egunerokotasunetik, desagertu izana. (...) 10 hilabete pasa dira (...) istripuari buruz ezer zehatzik ez dakigu.

Istripuaren eguna tristea eta gogorra izan zen Arbizurendako eta sakandarrendako. Eta, zer esanik ez, 10 hilabete luze hauek ere lagun eta etxekoentzat. (...) nabaria da gurekin ez dagoela. Nola igaro aurtengo Gabonak Alex gabe?

Etxekoek LAGUNTZA behar dugu. EGIA jakin nahi dugu. Horrek bakarrik lagunduko bai-

liguke hobeki ulertzen eta barneratzen ez dugula berriz ikusiko. Ez dugu nahi gau hartan gertatu zena argitu gabeko beste kasu bat bihurtzea, ez eta bazter batean betiko ahaztea. Horretarako, LAGUNTZA ESKATZENDUGU!

Urtarrilaren 31ko gau (...) hartan, Etxarri Alex ikusi zuen edonork edozein pista txiki (...), edozein detaile (...) gurekin konpartitzea nahi genuke. Zuk pensatu ez arren, agian, gau ilun hartan gertatu zena argitzeko giltza izan daitekeelako.

Argi utzi nahi dugu ez gabiltzala errudun baten bila, ez baitugu Alex inork itzuliko. Soilik egia jakin nahi dugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu, denbora luze honetan, modu ezberdinetan borondate on guztiarekin gurekin egon eta lagundu diguten pertsona guztiei.

**Kontaktua: 609 786 751 / 661 802 686 (lehengusuak)**  
Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefona, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira

gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus) edo [948 564 275](tel:948564275) telefona.**

## objetibo tik



### Jaki bilketa eguna, gaur eta bihar:

Gaur zuk gonbidatzen duzu lelopean Nafarroako Elikagaien Bankuak jaki bilketa antolatu du. Erakundeko boluntarioak Sakanako hainbat herrietako bilketa puntuetan egonen dira. Bildutako jakiak 32.700 nafarren artean banatuko dituzte. Hainbat izan daitezke horretarako arrazoiak: langabezia luze egotea, adinduen pensio eskasak, herentzian jasotako gizarte prekaritatea, edo sorterriko egoera.

objetibo tik: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • [maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ZUZENTZAILEA:** Felix Alzelai  
**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

**GIZONA ATXILOTUTA:** Foruzaingoak jakinarazi duenez, aurreko egunetan 30 urteko gizon altsasuarra atxilotu du. Gizonari ama eta arreba erasotzea egotzi diote. Fo-

ruzaingoak jakinarazi duenez, gizonak aurrerariak ditu antzeko gertaerengatik.

# sakanerria >>

**Azaroak 25, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna**

>> **Altsasu / Arbizu / Etxarri Aranatz / Olatzagutia**

## Herritargo konprometitu baten alde, emakumeenganako indarkeriaren kontra

Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, Genero indarkeriaren aurkako kanpaina antolatu du Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak. Harekin bat egin dute Sakanako hainbat udalek, esaterako, Arbizuk, Etxarri, Altsasuk eta Olatzik.

Adierazpen bateratua onartu dute, zeinaren bidez argi adierazten baita emakumeenganako aurkako indarkeriaren arazoa ez dela emakumeengan arazo bat, "gizarte osoaren arazo bat baizik, horregatik, gizarteak bere osotasunean eran-

tzun behar du". Udaletatik diotenez, "azken urteotan aurrerapenak izan dira, besteak beste: arauetan, hezkuntzako eta indarkeria aurrezaintzeko programak ikastetxeetan garatu dira eta gizarte kontzientziatzeko eta sentsibilizatze-ko kanpainak planifikatzean".

Gaineratu dutenez, "emaitza positiboak ere lortu egin dira gizartearen eta erakundearen erantzunetan, esaterako, Nafarroako herritarrek San Ferminetan erakutsitakoa, era eraginkorrean agertuz eta gaitzespena erakutsiz festetan gertatutako sexu-erasoen aurre-

an eta argi utziz jarrerara mota horiek ez direla onartzen, eta gizarte demokratikoa eta berdintasunezkoa ez dute sortzen, ezta laguntzen ere".

### Adierazpena

Udalek indarkeria sexista gaitzetsi dute: "agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direlako".

Horrekin batera konpromisoa azaldu dute, "herri administrazio gisa, era aktiboan desberdintasun-

en eta emakumezkoen eta gizonzkoen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzuteko ere, berdintasuna politika guztien ardatza izan den legegintzaldi batean".

Aldi berean, udalek elkartasuna azaldu diete "edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturrerako indarkeria sexistaren biktima izan direnei. Gure babesosoa beraiendako eta beren familienda-

ko". Gainera, herritarrei gonbidapena luzatu diete: "emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrerara erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan izaten diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatzerako".

Antolatu diren jardueretan parte hartzerako animatu dute, "guztiok batera aurrera segiko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikagoa, bidezkoagoa eta berdina izan den gizarte baten bidean".

>> **Irurtzun**

## Indarkeria fisikoaren aurretik dagoen indarkeria psikologikoaz gaztigatu dute

**Gaur, 20:00etan Irurtzun plazan kontzentrazioa deitu du Erratzak Astinduz-ek**

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, Erratzak Astinduz taldeak egitaraua prestatu du gaurko. Bizirik eta aske izan nahi dugulako. Eguneroko

borroka da leloa aukeratu dute gaurko. Taldetik azaldu dutenez, "emakumeenganako indarkeriaz hitz egitean, normalean, burura datorrigun lehenengogauza indarkeria fisikoa da, baina horretara iritsi baino lehen beste hainbat portaera daude: mikromatxismoak".



Gaztigatu dutenez, "portaera horien bitartez gizonzkoek emakumeengan duen nagusitasuna eta menderatzea bilatzen da. Horrela-

ko portaerak genero roletatik hasten dira eta umiliazioekin, errespetu faltekin, irainekin... jarraitzen dute". Hori guztia indarkeria

psikologikoa dela nabarmendu dute. Horrek "emakumezkoaren inibizioa, bere buruarengan konfiantza galtzea eta autoestimua gutxitzea bezalako ondorioak eragiten ditu, baita baliogabetasun, babesgabetasun, erruduntasun eta zalantza sentimenduak ere".

### Egitaraua

**20:00etan** Kontzentrazioa plazan.  
**21:30ean** Afaria, Iratxo elkarteak.  
**23:00etan** Ane Martija eta Amaia Guruzelain bakarlariek.

>> **Altsasu**

## Sexu indarkeriari erantzun feminista emateko deia

**Gaur, 20:00etan, udaletxe parean kontzentrazioa**

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunarekin batera, Altsasuko mugimendu feminista, atzera ere, kalera aterako da. Indarkeria matxista, erantzun feminista! Leloa duen kontzentrazioan parte hartzerako animatu dute. Indarkeria horren kontra daudela ozen aldarrikatuko dute. Gogoraziko dute gizarte osoaren arazoa dela, bai emakumezkoena bai gizonzkoena.

Altsasuko mugimendu feminista-  
tak gezuratu du emakumeen kon-

trako erasoak "gizonen haserrealdiak direla edota holako justifikazio arrunt eta inolako zentzurik gabekoa" dutenik. Argi adierazi dute: "eraso sexistaren erruduna, patriarkatua eta genero rolen eraketa dela kontziente gara, baina mugimendu feminista lanean jarraitzen du egunero, arazo honi aurre egiteko. Mugimendu feminista-  
taren helburua, arazo sozial honekin bukatzea da".

Feministek azpimarratu dutenez, "oso garrantzitsua da eraso matxistak eraso fisikoak bakarrik

ez direla kontuan hartzea. Egunerokoan hainbat arlotan emakume izateagatik jasaten ditugu edonolako erasoak eta horien kontra borrokatu behar dugu. Guztion konbentzimenduekin, helburu zehatzak jarri behar ditugu honi aurre egiteko eta emakumezkoek bizitza hobeto izan dezagun". Patriarkatuak "etengabe jartzen dituen oztopoak borrokatuko" dituztela gaztigatu dute, nahiz eta haiek "etengabe aldatzen egon, horregatik, erne eta beti aurre egiteko prest" egoteko ohartarazi dute.



**PORTUKO**  
OKINDEGIA  
ogia ren  
artisa uak

Altsasu  
948 563 822  
Lantegia  
948 467 153  
Etxarri Aranatz  
948 460 988

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

## » Altsasu

## Udalak ibilgailuendako parking berria jarriko du

**Altsasuko Udalak ibilgailuendako aparkaleku berria prestatuko du San Juan eta Kale Txiki artean. Sarrera-irteera azken kale horretatik izanen da. Herritarren eta dendarien aspaldiko eskaerei erantzun nahi die Udalak**

Berriki San Juan kaleko eraikin bat erautsi dute haren lurjabeek, garai bateko Lurrin Makina taberna zegoen etxebizitza, hain zuzen. Lurjabeek ez dute epe motz eta ertainean bertan etxebizitarik jartzeko asmorik, eta horren jakitun, Udalak lursail horren erabilera Udalarari uzteko eskaera egin zien lurjabeek, ibilgailuak aparkatzeko parking batera bideratzeko. Lurjabeek baiezkua erantzun zuten eta, horrela, bi aldeek hitzarmena sinatu dute. Horrela, Udala izango da parkinga atontzeko egin



25 plazako aparkalekurako 44.770 euro (BEZ barne) bideratuko ditu udalak.

beharreko lanak egin eta lanak bere kargu hartuko dituen. Zesioaren gutxieneko epea 3 urtekoa izango da eta zesioa luzatzeko aukera izango da epea gainditzerakoan. Kontraprestazio moduan, lurjabeek ez dute bi lursailen kon-

tribuzio tasarik ordaindu behar izango.

Aurreikusten da 25 ibilgailu-erendako tokia izango duela; horietako bat ezgaitasuna duten pertsonendako izango da. Aparkalekurako sartzea eta ateratzea atzetik,

Kale Txiki kaletik izango da. Aparkalekuak San Juan kalera ematen du, eta alde horretan lursailen lurjabeek pareta bat jasoko dute, baita parkingera doazen oinezkoendako sarbide bat ere.

## Zelandikoa

San Juan eta Kale Txiki arteko parking berria Altsasuko Udalak azkenaldian sortzen duen bigarren parking probisional da. Aurreko legegintzaldian Zelandi ikastetxearen eta Osasun Etxearen artean parking publiko probisional atondu zuen Udalak, 47 ibilgailuendako tokia duena. Orduan, Construcciones Alzate enpresarekin egin zuen lankidetzaren hitzarmena Udalak, sektorearen garapen urbanistikoa hasi arte luzatuko dena.

## » Uharte Arakil



## Atarako pistako lanak bukatuta, bidea mugatuko du Udalak

**Herriko abeltzainek eta udaletxean eskaera egiten duten uharterrek izango dute langa zabaltzeko giltza**

Uharte Arakildik Aralarrean doan pista hartu, 5 km inguru ibili eta pistatik eskualdera ateratzen den pista batetik joaten da Atara. Bada, pista horretara sartzeko hasierako tarte horretan lanak egin dira. Zehazki, pista sarrerako hasierako zati horretan porlana jarri dute eta pista konpaktatu egin dute. Lanak lastailaren bukaeran despeditu zituzten eta Nafarroako Gobernuko Baso Lanetarako Laguntzen Departamentuko diru-laguntzen bitartez egin dira. Uharte Arakilgo alkate Aina Aiestaranek azaldu duenez, Atara doan pistako beheko langa itxi egingo da. "Herriko abeltzainek izango dute langa horretako giltza, eta Uhartereko herritarrek eskatu ahaliko dute udaletxean. Ibilgailuendako pasamugatu honekin pistaren mantenua ziurtatunahi dugu" nabarmendu du alkateak. Joan den hilabetean ere, Ibaiko kalean dagoen iturria eta aska konpondu zituen udalak.

## »

## Beilatokiarendako kokapen egokiaren eskaera berretsi dute

Gurutze Sainduko kaleko 6. zenbakian beilatokia egokitzeko lanak hasi direla eta, altsasuar talde batek bere kokapenarekin desadostasuna berretsi du. Herri barruan hiru gela izanen dituen beilatokia eraikitzea ez dute "ez egoki ez aproposa" jotzen. Beste kokapen bat eskatzen duen altsasuar taldeak nabarmendu duenez, "beilatokia kokatuko den kalean aparkatzeko tokirik ez dago, auzoan aparkatzeko arazoak daude". Proposatutako kokapenaren

ondoan toki zabalik ez dagoela eta beraz, hara doazena "lasaitu, erlaxatu, hitz egin eta abarerrako tokirik ez dutenez, errepidera aterako dira".

Beilatokiak bi gastronomia elkarteren ondoan legokeela eta haietan festa giroa izaten dela nabarmendu nahi izan dute. Eta, gaineratu dute, Foru plazatik gertu dagoela, "herriko ospakizunen tokia da, musika, zarata, iskanbila..." Ospakizun egunetan Alde Zaharra trafikorako ixten dela eta

halakoetan aparkatzeko tokiak murrizten direla gaztigatu dute. Horrekin batera, autoek harrapatutako hiru haurren kasuak gogora ekarri dituzte.

Kokapenak inguruko eguneroko bizitza baldintzatuko lukeela adierazi dute, hainbat adibide emanez: "haurrak kalean jolastea, musika entzun, umeekin ikastetxeetara joatea eta beste aspektu asko. Auzokideak kalera aterako diren bakoitzean hildakoaren senideekin eta lagune-

kin topo eginen lukete; etengabe haien minarekin elkar bizitzera behartuta leudeke".

Beilatoki baten kokapenak berez "ezinegona eta arbuioa" sortzen dituela diote, "horregatik, ez dugu egoki ikusten herri barruan kokatzea". Azkenik, plazaratu dute kudeaketa pribatuko beilatokia beharrean udal edo eskualde mailakoa zergatik ez daitekeen egin. Argudio horiek udalean ordezkariak duten taldeei jakinarazi dizkiete.

## » Iturmendi

## 17 urteko uhin-eztanda

Iturmendiko Gazte Asanbladak sustatutako irrati libreak, Eztandak, bere 17. urteurrena ospatu zuen larunbatean. Ospakizun egitaraua eguerdian egindako talo dastatzearekin hasi zen. Bertso-bazkarian 50 bat pertsona elkartu ziren. 19:00etan ekitaldia egin zuten. Irratiaren pasarteak jasozten duen bideo emanaldiaren ondoren, omenaldiaren garaia iritsi zen. Urtetan hedabidearen zutabe izan diren Gorka eta Sergiok, aitortza gisa, plaka bana jaso zuten. Omenduendako ezustekoa izan



zen aitortza.

Plaketan honakoa irakur daiteke: 17 urte baliabide gutxiarekin

amets bat egia bihurtzen hasi ginetik. Zuei eta zuen lanari esker, Sakanan zehar musikaz, ezagutzaz

eta askatasunaz betetako uhinak hedatu ditugu. Mila esker guztiagatik eta segi dezagun eztanda egin arte! Segituan, Aizkozar elkartearen eta gaztetxearen artean pintxo potean aritu ziren. Ogi-tartekoak afaldu ondoren gaztetxean gau-pasa egin zuten.

FM 107,7 dialean entzun daiteke irrati, edo [www.eztanda.com](http://www.eztanda.com) web orrian. Mugikorrendako aplikazioa ere badu irratiak. Eta Tunein plataforman ere opa daiteke bere sintonia. Bere bospasei saioez aparte, Eguzki eta Hala Bedi irratiak saioen emisioa egiten du goizetan. Gainontzeko emanaldia musika eskaintza zabalarekin osatzen du.

## »



## Bergarak Rodriguez ordezkatu du udaletxean

**Aurreko legegintzaldiko alkate eta egungo zinegotzi Javier Rodriguezek kargua utzi behar izan du arrazoi pertsonalengatik. Atzoko bilkuran Julen Bergarak hartu zuen bere tokia**

Uharte Arakilgo Udala zinegotzi berria du. Aurreko legegintzaldian EH Bildurekin alkate izan zen Javier Rodriguezek oraingo legegintzaldian zinegotzi kargua zuen. Arrazoi pertsonalengatik, lan kontuengatik, kargua utzi behar izan du Rodriguezek eta atzoko udal osoko bilkuran Julen Bergara Baraibarrek hartu zuen bere tokia.

## » Lizarraga

## Festetan omenduak

Urtero moduan San Klemente festak baliatzen ditu Lizarragako Kontzejuak adineko herritarrek omentzeko. Kontzeju-etxean atzo egindako ekitaldian Esteban Senar



Lizarragak eta M<sup>a</sup> Lourdes Andueza Berastegik kontzejuaren aitortza, plaka bat, eta lizarratarren berotasuna jaso zuten. Dantzari batek aureskua dantzatu zien. Ondoren, denak dantzara batu ziren. Ekitaldiaren aurretik auzate ederraz gozatzeko aukera izan zuten bildutako guztiek.

## SAKANA



## Sakabanaketaren kontrako mozioak udaletan

Sakanako Sare Herritarra giza saretik jakinarazi dute aste honetan ibarreko udal guztietan mozioa aurkeztu dutela. Udalei idatzian eskal presoek, eta bereziki Sakanakoek, "pairatzen duten sakabanaketa politika salatzea" eskatzen zaie. Sareko kideek diotenez, sakabanaketa "oinarrizko eskubideen urraketak ez ezik, gehituzko zigor krudela ere badelako haien senide eta lagunendako".

Mozioa onartzen duten udalei erabakia hainbat erakunderi bidaltzea eskatzen die: Nafarroako Gobernuko Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari, Iruñean dagoen Espainiako Gobernu Ordezkaritzari, Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralari eta Frantziako Gobernuari.

Sarek, bide batez, Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak euskal herrira lelopean ilbeltzaren 14an Bilbon eginen den manifestaldiari babes emateko eskatu die ere udalei.

### SAKABANAKETA POLITIKAREN DATUAK SAKANAN

- Sakanako senide eta lagunek astero 8.000km egin behar izaten dituzte haien senideak bisitatzeko.
- Batz besteko km-ak familia bakoitzeko: astero 1.130km, hilero 4.520km eta urtero 62.150km
- Dispertsio politikak Sakanako senideei suposatzen dien batz besteko gastua familia bakoitzeko: astero 377,94€, hilero 1.637,75€ eta urtero 19.653€.
- Istripu arriskua: Sakabanaketa politikak 25 egunetik behin istripu bat eragiten du espetxeetara bidean. Azken istripua pasa den asteburuan gertatu da. Dagoeneko dispertsio politika ezarri zenetik 16 senide hil dira errepedean

## SAKANA

## Turismo Garapen Jasangarriak ezagutzeko aukera

**Astelehenean, 15:30etik aurrera, Uharteko Arakilgo Zamartze monasterioan, hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izanen da**

Sakana 2020 Plan Estrategikoaren barruan, Sakanako Garapen Agentziak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, antolatuta, Turismo Garapen Jasangarriaren Esperientzien I. Jardunaldia antolatu du astelehenerako. Antolatzaileek beste eskualde eta herrialde batzuetan izandako turismo jasangarriaren inguruko garapen ereduak ekarriko dituzte gurera, lau turismo garapen eredu desberdin, hain zuzen.

Atsedendian Zamartze eta bere historia ezagutzeko aukera izanen da, eta, bukaeran, mahai ingurua eginen da. Jardunaldiak


oso interesgarriak dira turismoari lotutako negozioak dituztenendako eta turismoaren gaian interesa dutenendako.

### Egitaraua

**15:30ean:** Hizlari eta partaideen harrera  
**16:00etan:** Jardunaldiaren hasiera  
**16:20ean:** Kaaño etxea (Arrarats)  
**17:00etan:** Zerain turismoa (Zerain)  
**17:40ean:** Atsedendia. Kafea eta Zamartze bisita  
**18:20ean:** Qeteo Patrimonio Cultural y Natural (Zaragoza).  
**19:00etan:** Khuska Travel Sudamerica.  
**19:40ean:** Mahaingurua.  
**20:00etan:** Jardunaldiaren despedida.

### Plaza mugatuak

Izena emateko furbitearte@sakanagarapen.com e-postara idatzi behar da.




Zamartzeko indusketen inguruko azalpenak entzuten. ARTXIBOA



## Sakanako 4 gazta munduko onenen artean

Joan den astean Donostiak World Cheese Awards edo Munduko Gazta Sarien 29. edizioa hartu zuen. Artzai Gazta ea Idiazabal jatorri izendapeneko 230 gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta haietatik 105ek sariren bat jaso dute. Sakanako lau gaztek dozena erdi domina eskuratu dituzte.

Artzai Gazta-Idiazabal jatorri izendapenaren barruan Izurdiagako ezkuratarren Ezkurra gaztak bi domina eskuratu ditu: urrezkoa keeztatutako ardi gazta mailan eta zilarrezko bat Idiazabal jatorri izendapenaren. Arbizuko Juananeko Gaztak zilarrezko saria lortu du Idiazabal jatorri izendapenaren mailan. Eta Unanuko Balda, Artola y Otros elkartearen Beriain gaztak brontzezko bi domina eskuratu ditu bi mailetan: Idiazabal jatorri izendapeneko bata eta gaztandegi txikiena bestea. Azkenik, Altsasuko Patxi Amillanoren Larrezabal eco gaztak zilarrezko



Artalde Izurdiagako larreetan.

domina eskuratu du ardi gazta gogorren mailan Idiazabal jatorri izendapenaren barruan.



## Baliogabetutako LEPak bederatzirakasle sakandar kaltetu ditu

**Oposizioa gainditu eta gaur egun praktikak egiten ari dira. Esan dutenez, "ezjakintasuna, ziurtasun eza eta beldurra gure egunerokotasunera bueltatu dira", deialdia egin aurreko garaia gogoratuz**

Nafarroako Gobernuak irakasleak kontratatuzko Lan Eskaintza Publikoa (LEP) egin zuen. 200 lanpostuetatik 108 euskarazko irakasleendako ziren eta 92 gaztelaniatzekoendako. Euskarazko lanpostuen kontrako salaketa jarri zuen Afapna sindikatuak eta Nafarroako Justizia Auzitegiak hilaren 11n arrazoia eman zion. Epaiaren arabera, Hezkuntza Departamentuak legea bete gabe atera zituen lanpostuak. Gobernuak berak eta beste sindikatu batzuek helegiteak aurkeztu dituzte dagoeneko.

Euren etorkizunarekin kezkatuta, kaltetutako irakasleek batzorra egin zuten Iruñean larunbatean, eta kaltetuen plataforma sortu dute. Haien artean sakandarrak zeuden: Nerea Santesteban, Gor-

ka Santesteban, Nerea Garziandia, Aitziber Vitoria, Aizea Beraza, Juanpa Santano, Xabier Pereda, Irantzu Goikoetxea eta Erkuden Goikoetxea. Ordezkoen zerrendan ere sakandarrak izanen dira.

Larunbatean elkartu ziren 100 kaltetuek adierazi zuten ez daudela epaiarekin ados: "irmoki eskatzen dizuegu egoera honi irtenbide azkar, egoki eta bidezko bat lortzeko aukera duzuen horiei, hitz egin, ados jarri eta egin beharreko moldaketak egin ditzazuen, gure lana, gure proiektuak, Hezkuntza Publikoaren egonkortasuna eta gure ikasleen ongizatea bermatu ahal izateko". Gaineratu dutenez, "100 ez da soilik zenbaki bat; atzean pertsonak, familiak, istorio desberdinak eta sentimendu ugari daude".

Plataforman bildu direnek euren "lanaren defentsa legitimoa" egin nahi dute; "inork ez digu ezer oparitu, plaza lortzea gure sakrifizioaren emaitza izan da".



Kartazalak · Txartelak · Diptikoak  
 · Triptikoak · Flyer · Eskuorriak  
 · Aldizkariak · Katalogoak  
 · Egutegiak · Etiketak · Pegatinak  
 · Kartelak · Argazki kalitate  
 · Plotter zerbitzua · Inprimakiak

**Txartel**  
 Inprenta digitala  
 eta papergintza

Bake Kalea, 2 - 31800 Altsasu (Nafarroa)  
 Tlf. 948 564 002 | E-mail: txartel@txartel.net

**BIL TOKI**  
 TABERNA · JATETKEA

Pintxoak  
 Bokatak  
 Plater konbinatuak  
 Karta

Asteleheneetik ostiralera  
 Eguneko menua  
 9€

Asteburuetan  
 Menu berezia 25€  
 948 467 876 · Altsasu



948 460 014  
 Zugarreta, 2 · Etxarri Aranatz



948 576 357

## #Altsasu, manifestazioaren bezperan

&gt;&gt; Altsasu

## Epaileak bederatziz altsasuarrak auzipetu ditu

**Zazpi preso segituko dute eta bi baldintzapean aske daude**

Ferietako liskarragatik auzipetuta dauden bederatziz altsasuarrak Carmen Lamela epaileak "terrorismo, atentatu, gorroto eta lesio" delituak leporatu dizkie. Gainera,

bederatziei 6.000na euroko bermea ezarri die, "egoztitakoengatik izan daitezkeen diru erantzunkizunak pagatzeko". Hori jakinarazteko Espainiako Auzitegi Nazionalera eramanen dituzte abenduaren 20an. Auzipetuetako

zazpi gazte preso daude eta beste bi aske. Lamelak instrukzioa despidituta prozedura Jose Luis Castro epaileak hartuko du.

Epaileak prozesamendu autoan auzipetu bakoitzaren kontra dauden arrastoak zehaztu ditu.

Hori egiteko erasoajasan zuten bi guardia zibilak eta haien bikoteen testigantza, haiek egindako identifikazioetan, mediku txostenetan eta ikerlariak (Foruzaingoa eta Guardia Zibila) egindako txostenetan oinarritzen da.

Bestalde, epaileak baldintzapean aske gelditu zen altsasuarrak bat kargugabetu egin zuen ostiralean. Azkenik, bi adin txikiko ere identifikatuta daude eta Lamelak haien auzia adingabekoen epaitegira bideratu du.

## SAKANA

## Udalek Altsasuko manifestazio isilarekin bat egin dute

**Zazpi gazteak askatzea eta auzia Nafarroara ekartzea eskatu dute 15 alkateek. Manifestaziora deitu dute**

Ferietako liskarra dela eta, Sakanako 15 alkateek "babesa eta elkartasuna adierazi" diote Altsasuko herriari. "Gure ustez, ederki antolatua da hedabideek egin duten litzamendua, eta, gainera, ondorio juridikolatzak ditu, erakunde judizial naturalei euren eskumenak kendu nahi izatea, adibidez, zentzurik gabe jende askori kalte handia eginik". Alkateek adierazi duteenez, "hori guztia gertatu da bere burua demokratikotzat jo arren, inkisidore gisa jokatzeko duen sistema politiko batean. Izan ere, presio eta mehatxuak eginez, sektore batek barneko izaera totalitariarra agerian utzi du, bere "kortijoa" arriskuan ikusten duelako".

Lastailaren 15eko gertaerei terrorismo delitua egozteak kez-

ka sortu du alkateengan: "horrek ekarri ahal izango luke gure herriko hainbat bizilagunen aurkako inputazioak jartzea, nahiz eta adierazpen-askatasunaren markoaren barruan legezko jarduerak egin dituzten". Gertakari larriaren ondorioak ere nabarmendu dituzte alkateek. Batetik, "oso irudi desitxuratua eman da Altsasu eta Sakanari buruz, errealitatearekin zerikusirik ez duena".

Alkateek adierazi dutenez, sumarioa Nafarroatik Madrilera eramatea "defentsarako eskubidearen eta epaile naturalaren printzipioaren aurka doa, eta justizia alorretik kanpoko interesak sartzea errazten du. Gainera, adierazpen askatasunaren eta elkartzeko eskubideen aurka joan daiteke". Aldi berean, alkateen iritziz "gertakaria terrorismotzat jo izana, neurritz kanpo dago eta ez du zerikusirik



Alkateek "elkartasuna" adierazi diete "zentsugabekeria honek jotako familiei".

gure ibarrean bizi dugun elkarbizitza-egoerarekin. Kalifikazio horrek berarekin dakar sumarioa Audientzia Nazionalera eramatea, eta Altsasuko pertsona askok 20 urte arteko espetxe-zigorriari aurre egin behar izatea".

**Eskaerak**

Alkateek gogorarazi dute gazte altsasuarrak euren borondatez epailearen aurrean deklaratzera aurkeztu zirela, horregatik, atxi-

loketak eta espetxeratzeak salatzen dituzte. Aldi berean, kartzelan dauden zazpiak askatzea exijitu dute. Horrekin batera, hedabideendako eta epaitegiendako eskaera luzatu dute: "gertakariak zentzuz, neurritz eta proportzioz tratatzea. Horretarako, ezinbestekoa da gaia Audientzia Nazionalera ez eramatea, eta defentsarako, epaile naturalaren printzipioa, adierazpen-askatasuna, eta biltzeko askatasuna errespetatzea".

## &gt;&gt; Altsasu / Sakana



## Gazteek zazpiak askatzeko exijitu dute

Euskal Herriko gazteriarri zuzendutako mezua emateko Altsasuko eta Sakanako gazteek agerraldia egin zuten asteartean. Ferietako liskarraren ondoren zazpi gazte altsasuarrak preso, bi baldintzapean aske eta bi adin txikiko auzipetuta. Azken lau horien "etorkizuna ere jokoan dago". Hala diote agerraldia egin duten gazteek. Haiendako 11 auzipetuek "ez dira izenak bakarrik, gure lagunak, anai-arrebak, klase-kideak, taldekideak, gaztetxeko lagunak, koadrilakoak... dira, eta gurekin nahi ditugu".

Gazteek "gure izaera errebeldeagatik jasan behar izan ditugun erasoak, atxiloketak, torturak eta espetxeratzeak" nabarmendu dituzte. "Gazteok izan gara estatuaren makinariaren jo-muga nagusia. Gazteriarren kriminalizazioa gogor salatzen dugu. Eraso honen aurrean, argi utzi nahi dugu ez gaituztela isilduko eta ez gaituztela geldituko".

Agerraldian hedabideek "jokatutako paper negargarria, manipulatuak" azpimarratu dute. Gertakariaren "dimensio handitza eta giroa lokatzeko ahalgin handienetarikoa" haiei egotzi diete. "Aipagarria da komunikabide ezberdinek jokatutako salatari lana, izenezberdinak publiko eginez, Altsasuko bizilagun ezberdinak kriminalizatu, eta herria beraren izena zikin-duz". Espainiako Auzitegi Nazionalak aurretik gazte euskaldunei "beldurra sartu nahian, zigor neurri-gabeak jarri" dizkiela salatu eta ziurtatu dutenez, "entzutegi nazional faxista horretan epaiketa egitea ez dugu onartuko".

Guztiagatik preso dauden zazpiak "lehenbailehen gure artean nahi zaituztegu, maite zaituztegun eta gurekin behar zaituztegun". Aldi berean, gazteek "une latz eta gogor hauetan gure elkartasun beroena eman nahi diegu espetxeratuei, baita familia eta lagun guztiei ere. Edozein laguntza eta babes emateko prest gaude". Azkenik, larunbateko manifestazio isilean parte hartzeko eskaera luzatu diete Euskal Herriko gazte guztiei.

&gt;&gt;

## Bake eta bizikidetzaren arloan jarduerak aurrekusi dituzte

**Nafarroako Gobernuak eta Altsasuko Udalak lankidetzan egingen dituzte**

Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak bakearen eta bizikidetzaren arloan ekimenak nahiz jarduerak antolatuko dituzte. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta

Javier Ollo alkateak bi erakundeen arteko lankidetzarako aukerak aztertzen zituzten ostegunean. Bileran Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar izan zen ere. Bilkura hori Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Toki Erakundearen programaren barnean sartzen da. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzarekin martxan jarri da programa hori aurrean. Beren helburua toki-erakundeak bakearen nahiz



bizikidetzaren ekintzetan inplikatzeko da (hitzaldiak, foroak eta ekintza zehatzak, esaterako); diagnostikoak eta bizikidetzaren planak egitea, edo alor horretan lantalde egonkorak sortzea.

Ollok adierazi zuenez, programan parte hartzea tresna garrantzitsua da irekiera, sentsibilitate, errespetu eta akordioarako borondatearen jokabide demokratiko bat garatzeko eta sendotzeko garaian. +www.guaixe.eus



Menua 16 €  
Enpresa bazkari  
eta afariak

Asteburutan zabalik  
948 464 327

655 225 717  
Uhartea Arakil

**Abenduaren 3an  
17:00etan  
Iruztungo Kiroldetxean  
Sarrerak: 6 € Martxuetan,  
Pikuxarren eta Estankon  
SALGAI**



#Altsasu, manifestazioaren bezperan

# Isilik, ozen entzuteko



Bertaratu ziren herritarrek espexeratuakoen senitartekoak babestu zituzten argazkirako.

**Altsasu lelopean manifestazioa egingen da bihar, 13:00etan, suhiltzaileen parketik abiatuta. Altsasuko Udalak, auzipetuen senideek eta herritarrek deitu dute**

Adineko altsasuar askorendako euren aurreneko manifestazioa izanen da biharkoa. Gertatutakoak horrenbeste puzteak mindu egin ditu: "lotsagabekeria hutsa da. Pasatu egin dira". Haien eta askoren parte-hartzerako manifestazio isila izatea eta leloa, Altsasu, pizgarria izan da. Asko eta askoren altsasuar sena mindua sentitu baita eta erantzuna eman nahi baitute.

Haiekin batera Sakanatik eta Euskal Herri guztitik etorritako jendea izanen da. Bateko eta beste autobus berri iritsi da. Manifestazio handia izatea espero da, horregatik, behar bezala kudeatzeko bilerara deitu zituzten altsasuarrak atzo, handik lan talde bat sortzeko asmoa zegoen. Aldi berean, zazpi atxilotuen askatasuna aldarrikatzeko kontzentrazioak egin dira egunero.

## Deitzaileen esanak

Javier Ollo alkateak manifestazioa deitzeko prentsaurrekoan Altsasuko Udalak joan den astean onartutako erakunde-adierazpena berretsi zuen. Horretaz aparte, "udal gisa, irmotasun osoz, gure haserrea adierazi nahi dugu hainbat komunikabidek Altsasuren irudiari izugarritzko mina egin diotelako gure herriaren irudi ez erreala plazaratuz". Ollok nabarmendu duenez, "Altsasu herri langilea da, historia duen herria, kultura duen herria eta aniztasuna normaltasun osoz eta bizikidetzan bizi duen herria da. Hori da gure herria eta udaletik hori nabarmendu nahi dugu".

Alkateak, udalaren izenean,

altsasuar guztiak manifestazioan parte hartzea animatu ditu. "Ezberdintasunen gainetik, esan behar dugu herri bat garelara eta herri gisa aterako garelara".

## Senideak

Atxilotutako senideek adierazpena argitaratu dute. Lehenik eta behin, gertatutakoa "deitoratu" egin dute, "baina iruditzen zaigu Altsasuko Ferietako goizaldean gertatutakoa tabernako liskar bat izan zela, besterik gabe". Senideak "babesgabe eta kezkatuak sentitzen gara gure seme-alaben etorkizunagatik, gauzak puztu egin direlako eta neurritz kanpoko kartzela-zigorak eskatu direlako".

Senideek ez dituzte atxilotetak ulertzen: "atxilotutakoak behin baino gehiago aurkeztu direnean beren borondatez azalpenak ematera. Era berean, ez ditugu ulertzen badaezpada neurriak, hain zuzen, neurritz kanpokoak eta erabat zentzugabeak iruditzen zaizkigulako; esate baterako, baldintzarik gabeko espexeratzeara agintzea".

Haien eta seme-alaben nahia "etxera bueltatzea da, haien eguneroko bizimodua berreskuratzea eta beren etorkizuna eraikitzen jarraitzea. Hau da, gure seme-alabek ihes egiteko asmorik ez dute, denok nahi baitugu etxera buelta daitezen lehenbailehen". Horregatik, erakundeek (exekutiboari, legegileari eta judizialari) babeska eskatu diete, gertakariak Iruñean epaituak izan daitezten. "Hor hasi zen instrukzioa eta hara bidali zen Foruzaingoaren txostena. Hura da kasua bere gain hartu zuena eta iruditzen zaigu bera dela horretarako eskumena duena".

Senideek, azkenik, "gure elkartasuna adierazi nahi diegu inoz

gertatu behar ez ziren gertaera haiek ukitutakoei, eta, oro har, Altsasuko herri osoari". Herriak erakutsitako "babesa eta elkartasuna" eskertu dituzte.

## Plataforma

Altsasuk jasotako egurra eta gero herritar talde batek Altsasuara eta harro plataforma sortu dute. Haien izenean Idoia Goikoetxeak eta Ramon Paniaguak hitza hartu zuten eta "larrizat" jo zuten "beren oinarritzko eskubideak errespetatu ez zaizkien lagunak espexeratu egotea. Beren izenabizenak eta nortasun agiriak komunikabideetan nahita kaleratu dituzte inpunitate osoz". Hori guztia posible egin duen zigor kodearen erreforma salatu zuten eta erreforma hori Nazio Batuen Erakundeak kritikatu dutela gogorazazi zuten.

Ferietako liskararen ondoren "bidegabekeria mugagabea sufritzen ari gara". Harriduraz hartu dute "Altsasu estatu afera" bihurtzea. "Zurrunbiloaren" ondoren "herria lur jota dago. Herri oso bat seinalatu dute, iraindu, kriminalizatu eta oraindik ez dakigu zehazki zein ondorio izan ditzakeen honek guztiak".

Plataformatik azaldu dutenez, "gure herriaren irudia eta bertan bizi garen pertsona guztion bizitza gogorki kaltetzen ari dira, baina horren gaineko zuzenketarik ez da inon ageri". Alkateak eta Koxka tabernak jasotako mehatxuak gogorazazi eta auzipetuei ezarritako terrorismo delituaren egozpena salatu ditu plataformak. "Zentzuz erantzutea eskatzen du momentuak. Gure herria batuta erantzuteko erakusten ari den gaitasuna eredu garria da".

**7.000 Km baino gehiago**

Atxilotuen familiek haiek bisitatzeko astebururo egin beharreko kilometroak. Gastua eta arriskua.

**Manifestazioaren ibilbidea**

Suhiltzaileen parkea, Gartzia Ximenez, Foruen Enparantza, Galtzada, Larrainbide, Zubeztia, Zelai, Isidoro Melero, San Juan, Idertzagain, Bakea eta lortiaiko zabalgunea.

## Bazkide zozketa

**AZAROKO SARIAK:**

**1. SARIA:**  
Ekain berri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gazteulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Blna sarrera

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Aquarium: sarrera bat.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gazteulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

IRURTZUN  
XOTA F.S.

CAMPING  
ARTAZA

LACTURALE

G

gazteulo

Poltsikorako, mahairako, hormarako...



**Eskatu zurea**

2016

Auzia ez da izan ala ez izan. Kontua ekitea da. Sortu. Eman eta hartu. Parte hartu. Partekatu. Leku hartu. Leku eginez. Atea irekiz, aukia eskatu. Ez gotortu, harresiak ez. Aterpeak eratu. Erenu...

2017

**gk**  
KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

## Altsasuko herriari elkartasuna adierazteko mobilizazio deia

**ELA eta LAB sindikatuek lan zentro guztietan gosari edo deskantsu garaian gaur ekimenak egiteko eskatu dute**

ELAK eta LABek "Altsasuko herriaren aurka eramaten ari den kanpaina" salatu nahi dute. Udalak onartutako agiriarekin bat egin dute eta, ondorioz, biharko manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute. Gainera, lan zentro guztietan gaur mobilizatzeko deia luzatu diete langileei: "gosari edo deskantsu garaian atxilotutako senitartekoei eta

Altsasuko herriari elkartasuna adierazteko ekimenak" bultzatzeko eskatu diete langileei. Egiten diren kontzentrazioak edo argazkiak #Altsasu lelopean egitea eskatu dute ELAK eta LABek. Sare sozialetan #Altsasu hastag-aerabiliz zabaltzea, altsasuelkartasuna@gmail.com e-posta helbidera bidaltzea ere. www.guaixe.eus web orriara ere igo daitezke.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

### Odei Iturrioz Fernandez

VI. urteurrena



Minak azala laztantzen digunean, guk indarra sentitzen dugu, zurekin inoiz baino biziago sentitzen garelako. Maite zaitugu.

**Rexu, Itziar eta Ihintza**

**Oroigarriak**  
egiten ditugu

**gk**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza, 23-1 Altsasu  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu. Euskara hutsean argitaratuko dira.



**Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Guaixe astekarior:** Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak / eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: doan.  
**Webgunean:** [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en)

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

### OHARRAK

**Odol-emaileak.** Azaroa: Olaztin 22an, 17:00-20:30. Abendua: Arbizun 1ean, 17:00-18:00 eta Lakuntzan 19:45-20:45

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslari-eriek aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo [amadominguez@tafallaikaastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikaastola.org) e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko

Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

**Volkswageneko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nicoloren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren ondorengoa. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago:**

[www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

**Egonkartzeko denon laguntza behar dugu,** lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zugabe-ezin>

**3MBk kontu korrontea zabaldu du** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

### Errefuxiatuendako material bilketa.

Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAK. Altsasun, Frontoi zeharbidea-aren 14an udalak duen bajearen, astelehenean eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzeko, udaletxearen estalpeko eskubiko atearen, astearte eta ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeen eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

### OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Bataurrekoak eta bataurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19.

Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

### OPARITUTAKOAK

Border Collie txakurkumeak oparitzen dira. Tel 699 780 772

### JAIOTZAK

• Irene Ruiz Sevilla, azaroaren 15ean Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## Pilota



## Iñigo Aritza Pilota Txapelketan finalerdiak jokoan

igandean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako frontoian

Iñigo Aritza Pilota Txapelketako azken txanpara heldu da. Lehen Hez-kuntzatik DBH 2ra bitartean, txapelketako finalerdiak egonen dira jokoan igandean.

## Iñigo Aritza Txapelketako finalerdiak (igandean, 16:30ean, ikastolan)

**LH3:**  
Alejandro Lopez - Mikel Arrizabalaga  
Eñaut Gastesi - Asier Zubiria

**LH4:**  
Aimar Igoa - Xabier Olaiz  
Enaitz Gonzalez - Oier Carabias

**LH5:**  
Oier Mitxelena - Oihan Gartzia  
Jon Aierbe - Patxi Azpeitia

**LH6:**  
Iker Agudelo - Aimar Gracia  
Joseba Ortigosa - Oier Gartzia

**DBH1:**  
Ander Goikoetxea - Aritz San Roman  
Lander Peral - Jon Navarro

**DBH2:**  
Angel Bergara - Oier Gastesi  
Aritz Ulaiar - Unai Irigoien

## Kiroldegia

## Jesus Senarrendako Kirol Merituaren domina

Nafarroako Gobernuak emandako oroigarria azaroaren 30ean jasoko du, Nafarroako Jauregian egindako ekitaldian, Uxue Barkos presidentearen eskuetatik

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari 23 Zilarrezko Domina banatuko ditu azaroaren 30ean Nafarroako Jauregian burutuko duen ekitaldian, Uxue Barkos presidentea buru dela. Domina hauekin Nafarroan 25 urte baino gehiago kirola sustatzeko makina bat nafarrek egindako ahalegina saritu nahi da. Zilarrezko Domina jasoko dutenen artean dago Jesus Senar Aristorena. Unanuarra jaiotzez baina Altsasura ezkondua, Jesus Senar Aristorenak makina bat urte eman ditu Etxarri Ara-

nazko Andra Mari ikastolan herri kirolak, pilota eta xakea sustatzen eta Altsasuko Pilotajauku klubean pilota sustatzen.

Jesus Senarrek Guaixerako Eñaut Agirrebengoak egindako elkarrizketan azaldu zuenez, 1990 urte inguruan hasi zen Andra Mari-ko hurrei herri kirol entrenamenduak eskaintzen. Geroztik ez du huts egin. Egun bere seme Mikel hartu du bere tokia Andra Mari ikastolan, Jesusek gorputz hezkuntza irakasle plaza libre utzi baitu, jubilazioagatik. Jesus Senarrek onartzen duenez, oraindik ere gustura ibiltzen da ikastolako txikiak herri kirolan trebatzen. "Herri kirolak gureak dira, berta-



Jesus Senar, eskuinean, bere alboan Mikel semea duela. EÑAUT AGIRREBENGOA

koak, eta nekez aurki daiteke herri kirolak baino kirol garbiago eta osasuntsuagorik" azaldu zuen Jesus Senarrek aipatu elkarrizketan. Zorionak bada, Nafarroako Gobernuak emango dion Kirol Meritua-

ren Zilarrezko dominagatik.

[guaixe.eus/komunitatea/eagirrebengo/1458198734321](http://guaixe.eus/komunitatea/eagirrebengo/1458198734321)

Eñaut Agirrebengoak Guaixerako aita-semeari egindako elkarrizketa.

## Pilota

## Ricardo maisuaren omenez

Olaztiko Sutegi pilota eskolako gurasoek eta Olaztiko Udalak Ricardo Lopez de Sabandok omenduko dute bihar, 12:00etan, Olaztiko pilotalekuan

Jaiotzez arbizuarra baina ezkondu geroztik Altsasuko bizilaguna den Ricardo Lopez de Sabandok bizitza osoa eman du pilota sustatzen. Tartean, Olaztiko Sutegi pilota eskolako entrenatzaile lanetan 16-17 urte inguru eman ditu, astelehenetik ostegunera, neska-mutikoak trebatzen. 68 urterekin erretiroa hartu du, baina, nolahi ere, Iñigo Aritza ikastolan oraindik ere txikiak pilotan trebatzen jarraitzen du.

Aurten utzi zuen Sutegiko ardurara. Olaztiarrek bere esker ona festetan adierazi zioten, uztaileko Olaztiko Santa Ana festetako etxajua Ricardo Lopez de Sabandok jaurti

baitzuen. Hunkitua, oso pozik agertu zen arbizuarra orduan. Sutegitik pasatako jende asko zuen gogoa, zendutakoak, jokalar, guraso, lagun eta monitorea, San Migel elkarteko pilotarien lagunak eta beste hamaika lagun. Pilotari lotuta jarraituko duela azaldu zuen, baina beste modu batean, Olaztiko pilota eskolan laguntzen jarraitzeko prest.

Arbizuarrak arrasto handia utzi du eta Olaztiko pilota eskolako gurasoek eta Olaztiko Udalak biharko, azaroaren 26rako, omenaldi ekitaldia antolatu dute.

[guaixe.eus/sakana/1469437904490](http://guaixe.eus/sakana/1469437904490)

Lopez de Sabandok Guaixerako egindako adierazpenak, **Olaztiko festetako etxajuan.**

## Omenaldia, pilota partida eta beste



12:00etan abiatuko da ekitaldia, Olaztiko pilotalekuan. Lehenik eta behin Iturmendiko dantzari emanaldia eskainiko dute. Ondoren, Ricardori omenaldia egingo zaio, sorpresaren bat tarteko, eta segidan berarekin duela urte asko pilotan trebatutako pilotarien arteko partida izanen da. Zornoak eta Agirrek Flores eta Beunza izanen dituzte aurkari. Segituan, Ricardo Lopez de Sabandori omenaldia egingo zaio, sorpresaren bat tarteko, eta guztiek talde argazkia aterako dute. Eguna borobiltzeko Klinkerren bazkaltzera bilduko dira 70 pertsona inguru.

## Txirrindularitza

## Burundak Hodei Mazkiaran omendu zuen

Txirrindularitza taldeak ostiralean batzarra egin zuen eta larunbatean bazkaria

2016 denboraldiari bukaera emateko ostiralean batzarrean bildu ziren Burunda txirrindularitza taldeko kide eta bazkideak. Urteko kontuak erreparatu eta kirol urtearen balorazioa eta balantzea egin eta gero, klubeko txirrindulari guztiei oroigarriak banatu zitzaizkien eta Burundan trebatutako Hodei Mazkiaran pistard altsasuarri omenaldia egin zitzaion.

Aurten txirrindularitza uztea erabaki du Hodei Mazkiarane, pista txirrindularitza ibilbide bikaina egin eta gero; Londoneko Olinpiadetan aritu zen altsasuarra. "Bere palmaresarekin txundituta utzi gaitu, lehiatu den lasterketa eta txapelketa guztiekin, joko olinpikoak tartean. Zoriontzea, ez dugu besterik" adierazi



Mazkiarane oroigarria jaso zuen.


zuten Burunda klubeko kideek. Bestalde, junior mailako 2. urteko txirrindulariei agur esateko probestu zuten ostiraleko ekitaldia. Haietatik bik, Alex Unzilla Aldasorok eta Asier Etxeberria Zafarak, afizionatuetara egin dute salto. Unzilla Telcom-Gimex taldean ibiliko da, eta Etxeberria, berriz, Euskadi Fundazioan.

Denboraldia bikain despeditzeko, Burundakoak bazkaltzera bildu ziren larunbatean, Urdiainen.

## Pablo Urtasuni omenaldia bihar Urdiainen

Larunbatean, 14:30ean, bazkaltzera bilduko dira Aitziber elkarteak

Pablo Urtasunek bizikleta zintzilikatzea erabaki eta gero, urdiaindarrek herriko txirrindularia omentzea erabaki dute. Horrela, biharko, larunbaterako, bazkaria antolatu dute Aitziber elkarteak, 14:30ean. Mahainguruan, primerako giroan, iritsiko da txirrindulari urdiaindarrak merezi duen omenaldia.



## Olaetxea Nafarroako Gazte Mailako Lau T´erditik kanpo

Asteazkenean Nafarroako Gazte Mailako Lau T´erdiko final laurdenak jokatu ziren Lekunberrin. Arbizuko Aldabide klubeko Olaetxea txapelketatik kanpo geratu da, Umore Onako Aizkorbek 18 eta 14 irabazi baitzion.

### IMAZTARRAK AURRERA

Zangozako Lau T´erdiko txapelketan, kimuen mailan Aldabideko Imazek 18 eta 5 irabazi zion Huarteko Urrizolari, eta haurren mailan Aldabide taldeko Imazek 18 eta 3 hartu zuen menpean Zizur taldeko Migeltorena. Txapelketan aurrera egin dute, bada, Imaztarrek.

**Triatloia-Duatloia**

# Sakandarrendako sariak Nafarroako Triatloi Galan

Larunbatean izanen da gala, 12:00etan, Iruñeko Zentral aretoan. Sakana Triatloi Taldeko Gomez, Imaztarrak, Razkin eta Lakuntza igoko dira oholtzara

Bihar, larunbatean, Iruñeko Santo Domingo azokan dagoen Zentral aretoak hartuko du Nafarroako 2016ko Triatloi Gala, 12:00etan. Nafarroako Triatloi Federazioak 2016ko Nafarroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituetako sariak banatu ditu eta baita Nafar Kirol Jolasetako Duatloi eta Triatloi Zirkuituetako sariak.

**Saritutako sakandarrak**

Saria jasoko dutenen artean Sakana Triatloi Taldeko triatletak eta duatletak daude. Zehazki, Nafarroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituko gizonen beteterano II. Mailako 3. Saria jasoko du Francisco Javier Gomez altsasuarrak. Bestalde, Nafar Kirol Jolasetan, Duatloi Zirkuituan benjaminen gizonen mailako lehen saria Ekain Imazendako izanen da eta hirugarren saria Alain Razkinendako. Eta Nafar Kirol Jolasetako Triatloi Zirkuituan emakumezkoen kimuen mailan bigarren saria eskuratuko du Nahia Imazek, eta gizonen kimuen mailako hirugarren saria Hego Lakuntzaren dako izanen da. Azkenik, gizonen benjaminen mailan bigarren saria Ekain Imazek jasoko du eta hirugarren saria Alain Razkinek.

rroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituko gizonen beteterano II. Mailako 3. Saria jasoko du Francisco Javier Gomez altsasuarrak. Bestalde, Nafar Kirol Jolasetan, Duatloi Zirkuituan benjaminen gizonen mailako lehen saria Ekain Imazendako izanen da eta hirugarren saria Alain Razkinendako. Eta Nafar Kirol Jolasetako Triatloi Zirkuituan emakumezkoen kimuen mailan bigarren saria eskuratuko du Nahia Imazek, eta gizonen kimuen mailako hirugarren saria Hego Lakuntzaren dako izanen da. Azkenik, gizonen benjaminen mailan bigarren saria Ekain Imazek jasoko du eta hirugarren saria Alain Razkinek.

**Txirrindularitza**

# Juango eta Aramendia Rural Kutxarekin bilduta

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko talde profesionala eta afizionatuen mailako taldea edo talde amateurra Tuterako Bed4U Hotelean kontzentratuta egon dira asteburuan. Talde profesionalako 19 txirrindulari eta afizionatuen taldeko 25 txirrindulari izan dira Tuteran 3 egunez bildu direnak.

Kontzentrazioan txirrindulari berriak ezagutzeko aukera izan zen eta heldu den denboraldian erabiliko dituzten materialak eta denboraldiko egutegiaren xehetasun batzuk ezagutu zituzten.

Alberto Mazkiaran altsasuarrak gidatuko du, berriz ere, afizionatuen taldea eta bere esanetara dituen 25 txirrindularien arte-



Aramendia eta Juango, alboetan.

an bi sakandar daude: Odei Juango lakuntzarra eta Eneko Aramendia iturmendiarra.

**Eskia**

# Sakanako 5 ikastetxek hartuko dute parte 33. Ipar Eskiko Eskola Kanpainan

Iñigo Aritza ikastola, Irurtzungo Atakondoa, Uharteko Arakilgo San Migel, Urdiaingo Herri Eskola eta Iturmendiko Arrano Beltza ikastetxeko ikasleak gozatuko dira eskiaz Erronkarin eta Otsagin

Nafarroako Gobernuak 33. Ipar Eskiko Eskola Kanpaina aurkeztu berri du. Kanpaina horri esker Nafarroako 140 ikastetxetako 5.162 ikasle eta 411 irakasle murgilduko dira ipar eskian, horietatik 4.232 ikasle Erronkariko bailaran eta gainontzeko 930 ikasleak Otsagiko bailaran. Aipatzekoa da kanpainan parte hartuko duten 5.162 ikasleetatik 1.548 ikasle (%30) Dereduan, euskaraz, egiten dituela ikasketak, eta euskarazko eskaria asetzeko neurriak hartu behar izan dituela antolakuntzak, euskarazko eskaintza bermatzeko.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio NICDO enpresa publikoak antolatzen du kanpaina, Larra Belagua Ipar Eski



Iñigo Aritza ikastolakoak, joan zen urteko Aste Txurian. IÑIGO ARITZA

Gunearekin batera eta Erronkariko eta Salazarreko Bailaren eta Izaaba eta Otsagiko Udalen laguntzarekin. La Caixa eta Caja Navarra Fundazioak babesten dute ekimena, 550.000 euroko laguntzarekin. Kanpainak irauten duen bitartean 125 lanpostu sortzen dira Erronkarin eta 35 Zaraitzuko ibarran.

**5 ikastetxe sakandar**

33. Ipar Eskiko Eskola Kanpainan

parte hartuko duten 140 ikastetxetarik 5 Sakanakoak dira: Iñigo Aritza ikastola, Irurtzungo Atakondoa ikastetxea, Uharteko Arakilgo San Migel ikastetxea, Urdiaingo Herri Eskola eta Iturmendiko Arrano Beltza. Azken hau kanpainan parte hartzen duen eskolarik txikiena da, hiru ikasle eta irakasle batekin. Abenduaren 18an hasiko da kanpaina eta apirilaren 28an despedituko da.

**Atletismoa**

# Sergio Martinez bigarrena Ikaztegiatan

Altsasuarra David Garcia txapeldunetik 16 segundora sartu zen

Sakandarrak 23. Ikaztegiatiko Herri Krosean (10 km)

1. David Garcia (Durango): 32:57
2. Sergio Martinez (Alts): 33:13
27. Fco. Javier Gomez (Alts): 36:50
34. Gorka Acebes (Olaz): 37:53
35. Andoni Azanza (Alts): 38:12
36. Iban Sobredo (Alts): 38:13
43. Juan Carlos Gomez (Alts): 38:58
53. Gorka Garcia de Eulate (Alts): 40:04

Larunbatean 23. Ikaztegiatiko Herri Krosa jokatu zen (10 km). 94 korrikalarien artean David Garcia (32:57) eta Lourdes Colomo (38:16) izan ziren txapeldunak. Sergio Martinez altsasuarra bigarrena sartu zen, 16 segundora (33:13).

**Salgado Karakaten**

Elgoibarren jokatu zen 23. Karakateko Igoeran (3,8 km). Iban Murua elgoibarrak errekorra hautsi zuen (26:52). Jose Antonio Salgado beteterano altsasuarra 52. postuan sailkatu zen (40:04).

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

10. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 2 - BETI CASEDANO 1**

ETXARRI ARANATZ 4 - AIBARES 0  
Jardunaldi borobila gure taldeendako. Lagun Arteak menpean hartu zuen ligako oilarretako bat, Beti Casedano. Partida oso zaila erremontatzea lortu zuten lakuntzarrek, Betiok aurreratu baitziren. Baina, ederki sufriritu, Odonekin berdintzea eta Mendietarekin irabaztea lortu zuten. Bestalde, San Donato zelaian gol festa ederra ospatu zuen Etxarririk. 2. zatian baloiaren jabetza hartuta, Xabatek 4 gol sartu zituen. Ikusgarria.

Sailkapena >>

1. Bidezarra ..... 23 p
5. Lagun Artea ..... 17 p
11. Etxarri Aranatz ..... 11 p

Asteburuko jardunaldia

**AIBARES - LAGUN ARTEA**

(Larunbatean, 15:30etan, Oibarren)

**AMIGO - ETXARRI ARANATZ**

(Larunbatean, 16:00etan, Amigon)

**ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa**

9. JARDUNALDIA

**ALTSASU 3 - PAMPLONA 2**

Julen Goikoetxea Altsasun atxilotutako atezaina eta laguna gogoan, "Zuekin gaude" kamisetarekin ateratzen ziren Dantzalekura Altsasuko taldeko jokalariek (ikus argazkia alboan). Altsasuk eta Pamplonak ongi jokatu zuten; baina, akaso, zertxobait hobeto aritu ziren altsasuarrak. 22. minutuan Josebak Altsasu aurreratu zuen, baina bost minutuko tartean bi gol sartu zituen Pamplonak, tartean bat Altsasuk bere ate propioan sartutakoa. Hala ere, gorritxoek ez zuten etsi eta 2. zatian partidari buelta eman zioten. Patxi bina berdindu zuen eta partida bukatzean zela, garaipenaren gola. Horrela, Juleni garaipena eskaini ahal izan zioten.

Sailkapena >>

1. San Jorge ..... 21 p
6. Altsasu ..... 11 p

Asteburuko jardunaldia

**AMAIA - ALTSASU**

(Larunbatean, 12:00etan, Taxoaren)

**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA**

10. JARDUNALDIA

ALTSASUK atsedean jardunaldia zuen.

Sailkapena >>

1. Osasuna Fundazioa ..... 25 p
- 14 Altsasu ..... 3 p

Hurrengo jardunaldia (abenduak 10-11)

ALTSASU - BERIAINGO IRUNTXIKI

**Futbola**

# Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 4. jardunaldia

Partidak igandean jokatu dira, Altsasun, Lakuntzan eta Etxarri Aranatz

Sakanako Mankomunitateak Sakanako futbol klubien laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Topaketetan, kimuen mailako 4. jardunaldia jokatu da igandean, Altsasun, Lakuntzan eta Etxarri Aranatz. Benjaminetan, aldiz, aurreko asteburuan bigarren jardunaldia jokatu zuten, Olaztin, eta hurrengo jardunaldia abenduaren 11n izango dute jokoan, Urdiainen.

# Sakanako Futbol Topaketak (Kimuen 4. jardunaldia, igandean)

- 10:00etan: Tipi-Tapa - Sutegi (Dantzalekun)
- 12:00etan: Lagun Artea - Urdiain (Lakuntzan)
- 12:30etan: Etxarri Aranatz - Kai-xo (Etxarri Aranatz)

**Areto futbola**

# Porrotaren ondoren erremontatzera

El Pozoren kontra 8 eta 2 galdu ondoren, gaur Levante hartuko du Magna-Gurpeak (20:30ean, Anaitasuna)

El Pozo Murtziaren kontra Magna Gurpeak jokatu zen partida aharreko modukoa izan zen. Murtziarrek etengabe erasotu zuten, eta nafarren atean asmatu zuten. Eseverrik eta Araçak markagailuan gerturatzeko lortu zuten, baina 2. zatiko azken minutu oso kaxkarren ondoren 8 eta 2 galdu zuten berdeek. Victor lesionatu egin zen eta Imanol Arregik arazoa du errotazioak behar bezala egiteko. Sailkapenean 8.a da Magna Gurpea eta gaur jaitziera postuan dagoen Levante hartuko du.

**Aizkora**

# Apustua Jauregiendako eta Kañamarendako

Ikusgarria igandean Tolosan jokatu tako apustua. Xabier Orbegozo Arria Vak 20 kana-erdiko ebaki behar zituen eta ondoren 20 kilometro korrikan egin. Bestalde, Kañamaresek 10 kana-erdiko ebaki behar zituen, eta ondoren Altsasun bizi den Arkaitz Jauregik 10 kana-erdiko ebaki eta 10 kilometro korrikan egin behar zituen, azkenean Kañamaresek faltaziren 10 kilometro osatzeko. Alde bakoitzak 8.000 euro jarri zituen dirutan. Kañamare III.ak eta Jauregik irabazi zuten (2:12:33), Arriari 50 metroko tartea, 21 segundo hain zuzen, aterata (2:12:54).

**Futbola**

# Altsasuk Julen eta besteak gogoan



Dantzalekun Goikoetxea atezainari eskaini zioten garaipena.

Altsasuko erregional mailako atxilotutako bere taldekide Julen Goikoetxeari eskaini zioten igandean Pamplonaren kontra lortutako

garaipena (ikus alboan). Ondoren, aldageletan #Mannequin Challenge bideoa grabatu zuten, sare sozialetan arrakasta handia izan duena.

**HAUR ETA GAZTE KANTARI JAIALDIAK:**  
Martxoan eta apirilean lau jaialdi izanen dira, bat Sakanan. 6 eta 16 urte bitarteko-ek parte har dezakete, bakarka, binaka

edo taldeka euskaraz kantatuz. Izena eman nahi duenak amadominguez@tafa-llaikastola.org e-postara idatzi behar du.

# kultura >>

## Haurrak album egile



**A**lbum ilustratuek hitza eta irudia dute eta asko izaten dira haien bidez irakurketa zaletzen edo hurbiltzen diren haurrak. Halako album bat egiteko aukera izanen dute 6 eta 10 urte bitarteko haurrek abenduaren 23an, 17:00etan. Altsasuko Iortia kultur gunean Aitziber Alonso ilustratzaileak eta Yolanda Arrieta idazleak album ilustratuak sortzeko tailerra emanen dute. Parte hartzen duten umeei album bat nola egiten den ikasiko dute, hitza eta irudia elkartzuz, bi profesionalen laguntzarekin. Bukatzean haurrek mostratxo bana etxera eramanen dute.

Ekimena Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuko du, Etxepare sariaren egitasmoaren barruan, haurrak albumen mundura gerturatzeko. Mankomunitateko antolakuntzan Altsasuko Udalaren laguntza izan du.

+www.guaixe.eus

### Abenduak 18

Data horren aurretik eman behar da izena Iortia kultur gunean: 948 564272 telefonoz edo iortia@altsasu.net helbide elektronikoz.

## Heldu diren bi asteburuetan, zinema euskaraz

**A**ltsasuko Udalak, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuak zinemaz eta euskaraz gozatzeko gonbidapena egin dute. Altsasuko Iortia kultur gunean heldu diren bi asteburuetan euskaraz proiektatutako lanak ikusteko aukera izanen da. Ostiral eta igande honetan, zine-forum saioan Jon Abrilaren *Neskatoak* dokumentala izanen da ikusgai. Beratarrek 1940etik 1970era bitarteko urteetan frankismoatik ihesi Frantziara neska joan ziren emakumeen esperientzia kontatzen du dokumentalak. Kasu gehienetan nerabeak eta neska gazteak ziren, bizi-modu hobea bilatzeko familiak atzean utzi zituztenak. Haietako 15en testigantzak jaso ditu Abrilak.

Abenduaren 3an, larunbatean, 20:00etan, Jon Maiak zuzendutako *Zura* dokumentala izanen da ikusgai. Abenduaren 4an, igandean, 17:00etan hurrendako *Zikoinak* filma izanen da.

## Sakandarrak Euskal Kantuko jaialdi nagusian

Larunbatean, 18:00etan, Tafallako kultur gunean

**E**uskarazko kantugintza zabal-tzea eta kantari nafarreien jendakuntza abesteko aukera ematea. Horiek dira Nafarroako Euskal Kantu Jaialdien helburuak.

Andoni Gastaminza uhartearrek Anje Duhalderen Eperrak kanta abestuko dute; Ariane eta Munia lakuntzarrek Ken Zazpiren Haizea kantatuko dute eta Ainhoa eta Itxasne Mundiñano ahizpek Anje Duhalderen Isilean.

Antolatzaileek azaldu dutenez,



Antsoingo eta Burlatako saioetan parte hartu duten bakarlarari, biko eta talde guztiak jaialdi nagusian elkartzeko dira, Tafallan. 13 guztira eta haietako hiru bikote sakandarrak dira: Josune Razkin eta

“parte-hartzaile guztiak maila bikaina erakutsi dute aurreko saioetan. Tafallan beren onena emateko prest izanen ditugu berriz ere”, Euskal Kantuko jaialdi nagusian. Saioa Zuriñe Hidalgok aurkeztuko du.

## ETXARRI-ARANAZKO BEILATOKIA

### Irekiera, azaroak 27

IZARRA osatzen dugunok etengabeko prestakuntza jasotzen dugu, gure bezero guztien ongizatea ziurtatzeko.

Gure jarduerak guztiaren onura gure lurrera bideratua da. Konpromiso sendoa dugu gure gizartearekin, batez ere sektore ahulekin.



365 egun/24 ordu



Irudian, Mikel Legarra, promotorea, Osane Goikoetxea, arduraduna eta Mikel Idoate, gerentea.

### ZERBITZU OSOA EMATEN DUGU

«Utzi dena gure esku»

Aseguru guztiarekin lan egiten dugu.

“Ordainketan lagun”

### GURE GOIBURUA

«Enpatia, hurbiltasuna eta begirunea»



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUI, A TU LADO

Nagusia 2, 31820 Etxarri-Aranatz

948 05 90 90

www.izarratanatorio.com

# Lakuntzako kultur argazkia egin dute, bizitza kulturala dinamizatzeke

**Larunbatean aurkeztu zuten Lakuntzako kultur batzordetik sustatutako kultur diagnosia. Kultur plangintza egokia landu behar dela, taldeen arteko agenda komuna sortu behar dela eta belaunaldien jarraipena sustatu behar dela, aipatutako ondorioak**

Larunbat arratsaldean aurkeztu zen, Lakuntzako kultur etxean, Lakuntzako kultur diagnosia. 40 pertsona inguru bildu ziren kultura batzordeko kide Oihane Uribe-etxeberriak eman zituen azalpenak entzuteran. “Diagnosiarekin Lakuntzaren kulturaren errealitatearen argazkia egiten saiatu gara, dauden beharrik antzemateko eta, guztiaren azterketa egin ondoren, martxan jartzeko. Helburua bizitza kulturala dinamizatzea da eta Lakuntzako Udalak kultur arloan dituen zerbitzuen azterketa, aholkularitza eta laguntza ematea. Finean, kulturaren inguruan dugun errealitatearen argazkia egin nahi izan dugu, herritarren artean partekatu eta lanean jartzeko” azaldu zuen Uribe-etxeberriak. Egindako lana 50-60 orriko dokumentu batean bildu dute.

## Inkesta, herriko taldeei galdetegia eta solasaldiak

Diagnosia egiteko erabilitako metodologian, batetik, herritarren artean inkesta egin zen: bestetik, herriko talde guztien ordezkariari galdetegia egin zitzaion — 18 talde dira — eta, azkenik, lau solasaldi antolatu zituzten, taldean hausnarketa egiteko. Solasaldietarako 100 pertsona deitu zituzten eta 22k parte hartu zuten, metodologia parte-hartzailean. “Kultura batzordeko kideak, udaleko zinegotzi eta zinegotzi ohiekin, herriko kultur sortzaileekin eta herriko taldeetako ordezkariekin bildu ginen. Kulturaren inguruan ditugun udal zerbitzuak, ekipamenduak eta kultur eskaintza landu genituen eta kalitatezko informazioa jaso genuen” nabarmendu zuen Uribe-etxeberriak, kultura batzordeko kideak.

85 lakuntzarrek bete zuten inkesta, horietatik %73 emakumezkoak. Gehienak 35-50 urte artekoak ziren.

## Kontestuaren azterketa

Diagnostikoa egiteko herriko kontestuaren azterketa egin dute. Lakuntzako historia, hirigintza, antolaketa eta ingurunea aztertu dituzte, eta baita soziodemografia ere. Demografia datuak hartuta, nabarmentzekoa da Lakuntza azken 15 urteetan %22 hazi dela. “Sakana mailan gehien hazi den herria da Lakuntza, eta herri gaz-

teena da, Irurtzunekin batera. Lehen hazkuntza handia 60. hamarkadan izan zen, industrializazioarekin, eta bigarren saltoa 2.000 urtetik aurrera eman zuen, mundu mailako immigrazioarekin. Egun jatorriz beste estatuetakoak diren lakuntzarrak %5 dira, gehienak marokoarrak eta senegaldarrak. Gero errumaniarrak, kolonbiarrak, bolibiarrak eta brasildarrak ditugu” azaldu zuen kultur batzordeko kideak.

Ekonomiari dagokionez, herritar gehienek metalurgian lan egiten dute eta langabezia tasa txikia da, gehiena emakumeena.

## Ekipamenduak eta zerbitzuak

Lakuntzako Udalak 6 partida ditu kulturarako. Tartean daude musika eskola eta liburutegia. “2015ean Lakuntzako Udalaren aurrekontutik %18 kulturara bideratu zen. Eta 1.200 biztanle dituen herri batendako ekipamendu asko dago: berritutako udaletxe aretoak, liburutegia, musika eskola, kultur etxea... Azken 8 urteetan ekipamenduen hobekuntza oso handia izan da: udaletxe berria, parke berria, plaza berria, kultur etxe berria...” nabarmendu zuen Uribe-etxeberriak. Eta, oro har, herritarrek kultur zerbitzuen inguruan egiten duten balorazioa positiboa da. Kultur etxeari, musika eskolari, udaletxeari eta jubilatuen egoitzari 7ko balorazioa eman diote inkestek, liburutegiari 5,5, Biltoki gazte elkartei 5 eta herriko musika taldeak entseatzera biltzen diren Mataderoari 5.

## Kultur eskaintzan plangintzaren beharra

Lakuntzan antolatzen diren kulturekitaldien inguruan, inkestean emaitzek diote %79,5ek ezagutzen duela herrian antolatzen dena. Ahoz ahokoaren bidez, kartelen bidez, sare sozialen bidez eta Guaixe astekariaren bidez enteratzen direla diote inkestek. Eta herritarrek antolatutako egiten duten balorazioa 6,88koa da. Ekintza kopurua nahikoa ote den galdetuta, %53,2k baietz uste du eta %46,8k ezetz. Eskaintza antolatzeko irizpideen artean, behin eta berriz errepikatzen da plangintza egokibaten beharra. “Behin eta berriz agertu da kezka hori. Jendeak dio plangintza bat behar dela, urterokoa, edo hiruhilabetekoa, eta komunikazioa hobetu behar dela... Bestetik, jarduera parte-hartzaileak antolatzea da gehien baloratzen dena, adin ezberdinetako harremanak sustatzen dituztenak, kontsumorako beste eredu



batzuk jorratzen dituztenak, sormena bulkatzen dutenak, herriko artistekin lan egiten dutenak, aniztasun kulturala lantzen dutenak, kalitatezkoak, euskalduntzea indartzen dutenak... Eta nori zuzenduak? Lehentasuna gazteei zuzendutako ekitaldiei ematen zaie, baina eskaintza orekatua proposatzen da, adin tarte guztiendako” gaineratu du kultur batzordeko kideak.

## Jendeak parte hartzen du

Inkestek, taldeekin egindako bilerrek eta solasaldiek argi utzi dute orokorrean Lakuntzako jendeak antolatutako ekimenetan parte hartzen duela, baina antolaketan aritzea beste kontu bat da. “Lan egiteko orduan sentsazioak beti berberak dira, antolaketa taldeetan egotea marroia dela eta taldeetan ez dagoela erreleborik, hori da beste kezka” aitortu zuen Uribe-etxeberriak.

## Kultur batzordea, beharrezkoa

Diagnosiak argi uzten du herritarrek kultura batzordea “beharrezkoa” ikusten dutela. “%81ek uste du hori. Nolanahi ere, batzordea sendotzearen beharra ikusten da; jende gehiagok hartu beharko luke parte” gaineratu zuen kultur batzordeko kideak.

## 18 talde daude

Lakuntzan 18 talde daude. “Diagnosian 16ren datuak daude, baina 18 dira” argitu nahi izan zuen Uribe-etxeberriak. Talde gehienek 20 urte baino gehiagoko ibilbidea dute, baina azken 7 urteetan 4 talde berri sortu dira. “Taldeen gobernua organoetan 97 pertsona daude eta horietatik 64 emakumezkoak dira. Gehienak 35 urtetik gorakoak dira. Talde hauen inguruan 1.000 pertsona inguru daude, bazkide eta taldekideen artean. Hortaz, ondorioztatu genezake ia herri guztia gutxienez talderen batekin lotuta dagoela.

Potentzialitate ikaragarria da hau. Taldeek, orokorrean, euren osasun egoera ona dela esaten dute, eta maiztasun erregularrekin biltzen dira” azaldu zuen Uribe-etxeberriak. Lakuntzarrek elkarten balorazio ona egiten dute orokorrean, 7,3koa, baina kezka nagusia da talde bakoitza bere kabuz ibiltzen dela, beti berdinak daudela lanean, baliabide gehiago behar direla eta gazteak ez direla antolatzen.

Diagnosian hainbat proposamen jaso dira. “Taldea ezberdinen artean koordinazioa eta elkarlana bulkatu behar direla, taldeen bilgune bat sortu behar dela, elkar ezagutza sustatzeko eta agendak partekatzeke, herriko agenda komun bat sortu behar dela eta taldeak ezagutarazteko bitarteko komunak jarri behar direla, horiek guztiak proposatzen dira” azaldu zuen Uribe-etxeberriak.

## Hemendik aurrera

Kulturaren inguruko argazkia egin, hemendik aurrera “lan handia” dagoela ondorioztatu zuten larunbatean Lakuntzako kultur diagnosiaren aurkezpenean bildutakoek. “Abiapuntu komunetik hasi behar dugu lanean. Denon artean aurrera begira landu beharrekoak markatu behar dira. Zein beharrek dute lehentasun gehien? Hortik hasi beharko dugu. Baina, argi dagoena da kultur plangintza bat egin eta ongi koordinatu beharko dela eta taldeen arteko agenda komuna sortu beharko dela. Taldeen getifikazioa apurtzeko proposamen interesgarriak daude; finean, denoi interesatzen zaigu herrian denetarik ekitaldiak egotea eta guztiak aurrera ateratzeko konpromisoa behar da. Eta, belaunaldiz belaunaldiko jarraipena da kezka sortzen duen gai bat. Non sartzen dira gazteak? Zein kezka eta behar dituzte? Horren berri izan behar dugu” ondorioztatu zuten bildutakoek.

+www.guaixe.eus

## Yakusi Altsuko eskua lehiaketako epea luzatuta

Asteazkenera arte luzatu dute Altsasuko hizkeran edo hitzak eta esamoldeak erabiliz egindako bideoak aurkezteko epea. wetransfer bidez erregistroa@altsasu.net e-posta helbidera bidali behar dira

**Y**akusi Altsuko eskua bideolehiaketa antolatu du Altsasuko Udalak Mank-eko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz. Parte hartzen duten lanek herriko hizkeran eginak izan behar dute, edo Altsasuko hizkerako hitzak eta esamoldeak erabili behar dituzte. Gaia librea da eta 5 eta 10 minutu arteko luzera izan behar dute. Taldeka edo kuadrillaka egin behar dira. Animazio lanak ere aurkeztu daitezke.

## Sariak

1. Altsasuko Dendarien Elkarteko establezimenduetan gastatzeko 300 euro.
  2. Altsasuko jatetxe batean lau pertsonarendako azeria (100 €ko gastua gehienez).
- Sari berezia:** Altsasuko hizkera hobekien erabiltzen duenari Sakanako gaiei buruzko liburu-sorta.

## Leitzako abesbatza Lakuntzan

Larunbatean, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

**N**afarroan Abesbatzak zikloak Leitzako Jeiki abesbatzaren kontzertua ekarriko du Lakuntzara. Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatzen du zikloa eta haren helburua da elkarteak abesbatzen eguneroko lana herrialdean bertan erakustea.



Ziklo berean, Etxarriko abesbatza Asteingo elizan ariko da, bihar bertan, 19:30ean. +www.guaixe.eus

## Metal doinuen txanda

Larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean

**H**ilotz eta Legalize Murder taldeek emanaldia eskainiko dute Etxarri Aranazten. Hilotz hirukoak aurten argitaratu duen *Giza Ankerkeria* diskoa aurkeztuko du, thrash metalaz aparte death eta black metal estilokoak uztartzen ditu.

Legalize Murder lauok iruindarrak 80ko thrash metal musika jorratzen du. Kreator, Motörhead, Venom edota Sodom taldeen kordenadetan mugitzen dira. *To kill or not to kill* disko laburra aurkeztuko du. +www.guaixe.eus

## Joseba Tapia, gitarra eskuetan

Gaur, 22:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Joseba Tapia musikariak bere proiektu berrirako trikitixa utzi eta gitarra hartu du. Zuzenatarako egitasmo berri horretan Tapiak bere kantutegiko 14 kanta berri ditu. Ukitu elektrikoa eman die eta rock usaina darie, 90eko hamarkadan Tapia eta Leturia Bandekin egin zuen moduan.

Aurreko diskoa, *Tximela kapitainaren izarrak*, ia berak bakarrik grabatu zuen, hainbat ins-

trumentu joz. Jendaurrera, ordea, gitarra klasikoarekin eta ahotsarekin eraman zituen. Bi urte oholtzatatik baztertuta egon ondoren, Tapia bueltan da eta ez du gitarra baztertu. Gehien-bat bere bakarkako diskoetatik aukuratutako aleekin errepertorioa osatu du. Haiek kantatzeko Tapiak Besamotzak izeneko bandarekin aurkeztuko ditu Etxarri Aranazten gaur. Honako musikariek lagunduko dute oholtzan: Dani Narbarte (trikitixa eta gitarra), Iñigo Telletxea (baxua) eta Iker Iriarte (bateria).



## Bakardadea keinu bidez azalduta

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Kulunka teatrorik *Solitudes* lanarekin maskara antzerkiaren erakusgarri bikaina eskainiko digu bihar. Hitz bakar bat esan gabe, keinu antzerkiaren magiaz, dena adieraziko baitu Kulunkak. Umorearen bidez familia bateko kideen bakardadean eta inkomunikazioan sakontzen du antzezlanak, bakardade moduak agerian utziz.

Aitona da protagonista eta bere sentsazioa da ez dutela ulertzen. Bizitza itxarote huts gisa bizi duten

adindu gehienek bezala, gauza sinpleak baino ez ditu nahi. Gauza hain sinpleak, zeren ingurukoak ez baitira haien garrantziaz ohartzeko. Bizitzan pizgarririk ez duen pertsonengan espero litekeenaren kontra, aitona ez du etsiko, ez die bere desiratxoak uko egiten eta haiek lortzeko, temoso eta duin, borroka egingen du. Horrek berarendako eta ingurukoendako ondorioak izanen ditu.

Agure alargun bat, semea, biloba eta bere semea aurrera aterako badu gorputza kalean saltzera behartuta dagoen emakume bat dira obrako pertsonaia nagusiak.



Belaunaldien arteko inkomunikazioa nagusi den gizarte batean, zein bere aldetik ez itotzen saiatzen da, non batzuetan arreta konpainiare-

kin nahasten baita. Garbiñe Insausti, Jose Dault eta Edu Carcamo Iñaki Rikarte zuzendariaren esanetara jokatu dute antzezlanak.

## Argazkilari sarituak



Altsasuko Mendigoizaleak taldeak feriak argazkitan jasotzeko rallya antolatatu du 31. aldiz. Herriz Herri txapelketarako baliagarria den sariketa ere bada. Aurten 51 parte-hartzaile izan dira lehiaketan eta antolakuntzatik jakinarazi dutenez, "maila igo" egin da. Larunbatean lehiakideen lanak pantaila handian ikusi zuen makina bat jendek. Ondoren sari banaketa egin zen. Iortia kultur gunetik pasatzen diren lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera izanen dute. Hilaren 29ra arte.

### Palmaresa

**Argazkirik onena:**  
Sarai Vilariño (Altsasu)  
**Helduen bildumarik onenak**  
1. Igor Froilan (Azpeitia)  
2. Jose Luis Rodriguez (Zalla)  
3. Patxi Irazabal (Donostia)  
**Haurren bildumarik onenak**  
1. Iker Ruiz (Urretxu)  
2. Alex Murciego (Urretxu)  
3. Josune Imaz (Olatzagutia)  
**Argazkirik dibertigarriena,**  
Altsasuko Dendari Elkartek emandakoa: Oskar Gaskon

## Ikuskizuna, gerra ez ahazteko



Hitzek eta doinubek, balen hotsetik hitzen doinura. Izenburu horrekin ikuskizuna prestatu zuen Oroimenez Arbizu taldeak. 1936ko estatu kolpearekin batera herrian gertatutakoak musikaz lagundutako irakurketa sorta baten bidez gogorazi nahi izan zuen. Txistulari batek abiarazi zuen ikuskizuna Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* joz. Antolatzaileen izenean Katrin Gineak aurkezpen laburra egin zuen eta txanda 14 hizlariei eta 19 musikariei eskainiz. Jendaurrean txandakatuz ordu beteko saioa osatu zuten. Despeditzeko, atzera ere, txistu doinua. Agur gisa ikuskizuneko antolatzaileek, parte-hartzaileek eta publikoak *Txoriak txori* abestia kantatu zuten. Bakarren batek hainbeste arbizar kanta hura kantatzen

ikustean hura "historikoa" zela adierazi zuen. Guztira 110 bat pertsonok gozatu zuten emanaldiaz. +www.guaixe.eu

**KALE TXIKI TABERNA**

Eskerrik asko denoi,  
egin diguzuen harrera  
goxoarengatik!

Menu 11 €  
Asteburuko menua 25 €

**Lakuntza**  
Telf: 948 57 60 09

**Non erabili**

**PATXI GALARZA**  
**IRURTZUN**  
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

**JM AGIRRE HARATEGIA**  
**LAKUNTZA**  
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

**DANTZALEKU TABERNA**  
**ALTSASU**  
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

**KAXETA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

**KATE INFORMATIKA**  
**IRURTZUN**  
%5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

**CITROËN SAN MIGUEL**  
**ALTSASU**  
total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan %30 deskontua.

**IRUBIDE JATETXEA**  
**ALTSASU**  
Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

**SAKANA OPTIKA**  
**ALTSASU**  
%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

**HOSTOAK LOREGINTZA**  
**LAKUNTZA**  
40€ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

**ILAIA ILEAPAINDEGIA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
Deskontu bereziak.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

# G

**asteko >> : eguraldia**

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 25%	euria: 25%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 15%
Min: 4 Max: 9	Min: 3 Max: 9	Min: 4 Max: 15	Min: 3 Max: 10	Min: 3 Max: 10	Min: 5 Max: 10	Min: 3 Max: 11

**: temperatura >>**

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	19	2,5	88
Etxarri A.	19,2	0	62
Altsasu	17,5	0,5	85
Aralar	12	-2	28
Urbasa	16	-1	10

**: ilargiaren aldia >>**

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
29	7	14	21

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
[www.ventanasegoki.com](http://www.ventanasegoki.com)

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

**denda txikiak, pertsona handiak**

# NIRE DENDA, ZURE ETXEA

Denda txikiak bizia ematen diete gure auzo, herri eta hiriei; tokian tokiko ekonomia bultzatzen dute; eta erakusleiho paregabea dira bertako produktuentzat. Horregatik Begoñak eta Jesusek egunero zabaltzen dizkizute ateak.

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra